

Barrena

INDARKERIA MATXISTA

"Inoiz betetzen ez den zulo baten tipokoa da indarkeria bikarioaren biktimen mina"
/ 2-3

Maria Bestar
'No estás loca'
dokumentalaren zuzendaria



MARIA BESTAR

♀ MARTXOAREN 8A

'Elektrizitatea', emakumeen indar bihurtua

Egitura patriarkalak salatu eta feminismotik mundu berdinzaleagoa eta gizatiarragoa eraikitzeko dei egingo dute igandean, Martxoaren 8aren harira egingo diren askotariko ekintzen bidez

Emakume talde bat Sorluzen, Zea Maysen 'Elektrizitatea' kantua entseatzen iganderako.

UBANE MADERA ZANGITU

URPEKARITZA

Kantauri itsasoan, lehen aldiz, manta-arraiaren ugaltzea grabatzea lortu du Fernando Calvok / 4-5



FERNANDO CALVO

ZAINTZA

Eguneko Zentroa egunero ireki dezatela eskatzeko, sinadurak biltzen hasiko dira bihar, Deban / 25



NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

INGURUMENA

Zaldibarko zabortegian istripu gehiago gertatzeko arriskua dagoela ondorioztatu du Ikuskaritzak / 17



MARTXOAK 8 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Eman tokia berdintasunari

Emakumeen eskubideak esparru guztietara zabaltzen jarrai dezagun.



MARTXOAREN 8A

"Indarkeria bikarioa, nagusiki, emakume bati min erreparaezina eragitea da"

MARIA BESTAR 'NO ESTÁS LOCA' DOKUMENTALAREN ZUZENDARIA

'No estás loca. La verdad sobre la violencia vicaria' dokumentala aurkezten izan zen atzo Elgoibarren Maria Bestar abeslari, aktore, gidoilari eta zuzendaria

Ainara Argoitia ELGOIBAR

Bizipen propioetan oinarrituta sortutako *No estás loca* izenburuko film laburretik izen bereko dokumentala ondu du Maria Bestar aktore eta gidoilariak (Madril, 1980), indarkeria bikarioa jasan duten emakumeen eta nerabeen azalean jarrita. Berrogei testigantza baino gehiago bildu ditu, tartean profesional askorena, erakusteko sistema judizialak sistematikoki huts egiten diela haurrei.

Emakumeen kontrako indarkeriak forma asko ditu, baina indarkeria bikarioa da, beharbada, denetan ankerrena. Nola definituko zenuke? Bai, hala da. Esango nuke emakume bati min egiteko modurik krudelena dela. Munduan asko ibilitakoa naiz; abeslari nintzeanean, asko ibili nintzen Latinoamerikan eta harreman handia egin nuen indarkeria matxistaren biktima askorekin. Bikotekideen jipoiengatik koman amaitu zuten emakumeak, labankadaz eraso egindakoak, bortxatutakoak ziren, senperrenak eta bi sufritutakoak, eta gauza bera errepikatzen zidaten guztiek: "Maria, zauri fisikoak senda daitezke, baina zauri psikologikoak ez; betirako dira". Eta indarkeria bikarioa, nagusiki, hori da; emakume bati min erreparaezina eragitea. Beldurra darabilte armatzat erasotzaileek, eta, kasurik larrienetan, seme-alabak hiltzen dituzte.

Zu zeu ere biktima izan zara. Artis-ta polifazetikoa zara, emakume kultua. Batek baino gehiagok esango du: "Nolatan gertatu zitzaion hori Mariari?". Zein da biktimen profila? Ez dago profil jakin bat. Dokumentalean ageri diren biktimen artean badaude medikuak, poliziak, kazetariak, gizarte-laguntzaileak, pediatrik... eta apropos aukeratuta daude, nazkatuta

nagoelako beti gauza bera entzuteaz: biktimak emakume eskolagabeak, pobreak, migratzaileak... direla. Ez da egia. Izatez, gainera, indarkeria bikarioa gehiago gertatzen da klase ertain edo altuko harremanetan, eta askoz da zailagoa identifikatzea, lotsa handiagoa ematen duelako. Erasoak klase ertain edo altuko bikoteetan gertatzen direnean, gainera, nekezago sinisten zaio emakumeari eta erasotzailea babestera egiten du inguruak.

Noiz eta nola jabetu zinen bizi zenuena ez zela normala?

Ez da batere erraza izaten. Uste dut seme-alaben kontrako eraso larri bat egin zuenean jabetu nintzela %100ean. Nik, lehen, normalizatu eta minimizatu egiten nituen bikotekidearen jokaera asko. *No estás loca* film laburra grabatzen hasi nintzeanean, banandu eta hamabi bat urtera, jabetu nintzen ez zirela batere normalak indarkeria bikarioa bere gordinenean bizi izan nuen garaian normaltzat eman nituen gauza asko. Dozenaka elkarrizketa egin ostean konturatu naiz hori dela biktimon izendatzaile komuna: bikotekidearengandik banantzea erabakitzen duten ama gehienek berandu hartzen dutela erabakia, hain justu ere gizona zuzenean seme-alaben kontra egiten hasten denean. Ordura arte mila klasetako torturak pairatu izanak izango dira, baina seme-alabak arriskuan ikusten dituztenean hartzen dute amek banantzeko erabakia. Eta gehienek pentsatzen dute hori amaituko dela sufrikarioa, baina ez, orduan hasten da benetako tortura. Bi gauza gertatzen dira: arriskua hartzea behar bezala funtzionatzen ez duen sistema batek epaitu eta bigarrenaz biktimizatze,

edo seme-alabak erasotzailearekin bakarrik uzten hasi beharra, epaileak zaintza partekatua ematea ebatzi duelako.

Zer profiletakoak dira erasotzaileak? Badago jarraitzen duten patro bat?

Profil jakinik ez dago, baina bai patro bat, eta beti da berbera. Espainia osoa zeharkatu dut testigantzak biltzen, eta ematen zuen gizon bera izan genuela biktima guztiok bikotekide. Esaldi berberak, portaera bera, egiteko modu berberak... ikaragarria da.

Eta patroia hain agerikoa bada, zergatik da hain zaila identifikatzea eta zigortzea?

Hori da neure buruari egiten diodan galdera. Ez dit uzten seme-alabekin egoten, ez dit uzten haiekin hitz egiten berarekin daudenean, mila aldiz errepikatu dit ez dudala ezertarako balio, ez dit pentsioa ordaintzen... jokatzeko modua hain da antzekoa kasu guztietan, harrigarria da kasu gehiago ez zigortzea. Zorritzarez, gehiago lehenesten da gurasoaren eskubidea haurren eskubidea baino, eta horixe salatzen dut dokumentalean ere, haurtzaroko eskubideetan adituak direnen ahotik. Nik beti diot aita ez dela obulua ernaltzeko hazia jartzen duena, baizik eta ume hori zaindu eta maite duena, baina, hala ere, indarkeria bikario kasuetan gehiago babesten da aita gisa jokatzeko ez duen gizona umeak baino. Nazio Batuen Erakundeak joan den astean egin zuen publiko zazpi urtean behin haur-

"Nazkatuta nago biktimak emakume eskolagabeak, pobreak, migranteak direla... entzuteaz"



Maria Bestar. ELKARRIZKETUAK UTZITAKO ARGAZKIA

tzaroko eskubideen inguruan egiten duen txostena, eta Espainiak ez du gainditu. Arrazoi osoz, gainera.

Diozu askotan etxekoek eurek ere bizkarra ematen dietela biktimei. Hortik *No estás loca* izenburua, ezta?

Bai. Gizarte matxista batean hezi garelako gertatzen da hori. Duela hogeita hamar bat urtera arte, barre egiten genuen orbanetaz betetako emakume bat erakusten zuen Martes y Trece umoristen esketxarekin. "Nire senarrak normala dena jotzen dit"; uste dut hori esaten zuela. Batetik, oso normalizatuta dago indarkeria, eta, bestetik, oso barneratua dugu emakumeak kezatiak eta histerikoak garen uste hori. Odoleraino sartu digute. Ni neu ere oso matxista izan naiz askotan, eta lan handia egin behar izan dut ikasitakoa desikasteko. Oso grinatsuak eta pasio handikoak ere bagara hemen. Japoniarrei azaldu egin behar izaten zaie hori hona datozenean, bestela taberna batera sartu eta denok elkarrekin haserre geundekeela pentsatuko zuketenean. Horregatik da oso garrantzitsua erakustea badaudela marra gorri batzuk inolaz ere ezin daitezkeenak gainditu. **Bi erasotzaile-mota bereizten dituzue: badira kolpe bakarrean**

emakumea betirako apurtzea bilatzen duten erasotzaileak, beren seme-alabak hilez, eta badira emakume bat torturatzeko bizi osoa dutela uste dutenak. Bigarrenean jartzen duzu arreta, bereziki.

Bai; biak dira oso gogorak, batean seme-alabak hiltzen dizkizutelako eta bestean bizian galtzen dituzulako. Ama batzuek bost-sei urte daramatzate beren seme-alabek hitz egiten ez dietela, aitzak haren kontra jarri dituelako edo seme-alabek hitza ukatu diotelako, aitaren beldurrez. Hainbestera izaten da aitari dioten beldurra, ezen amaren kontra jartzen diren, bizirauteko. Ulertzekoa da: sistemak erasotzailearekin bizitzera behartu baditu, zer egin behar dute gaztetxo horiek? Horixe ari da gertatzen Juana Rivasen semearekin ere. Ikaragarria da. Sekula betetzen ez den zulo baten tipokoa da mina; ikasi dezakezu harekin bizitzen, baina ez da sekula sendatzen. Horrek amengan sortzen dituen inpotentzia eta desesperazioa neurrigabeak dira. Jarri ume txikiak dituen ama baten larruan. Egotea normal batean ere, ama guztiok arduratzen gara asko gure seme-alabek; bada, pentsa ezazu zer izan behar den bost astez umeak laga behar izatea direnak eta bi egin dizkizun gizonarekin.

Ba al dago hori baino tortura handiagorik?

Nola da posible sistema judizial oso batek sistematikoki huts egitea?

Umeek amek esaten dietena sinisteko eta ipuinak kontatzeko joera duten uste hori oso barneratua dugulako; matxismoa-gatik. Laura Hernandezen kasua da adibidea. Laurak epaileari berari galdetu zion ea arriskuan ikusten zuen semea aitarekin, 11 urteko semeak ez zuelako aitarekin joan nahi, beldurra ziolako. Epaileak ezetz erantzun zion, semeak aita ikusten jarraitu behar zuela, eta astebetara aitak hil egin zuen. Epaile horrek, emakumezkoa bera, lanean jarraitzen du, eta ez du sekula aurpegirik eman nahi izan gero. Itziar Prats getxoztarraren kasuan, berdin. 2 eta 6 urteko alabak hil zizkion bikotekideak, epaileak amak eskatutako urrun-tze agindua ukatu ondoren. Ez dakit epaile horiek nola diren lo egiteko gai! Hilketen %90 saihestu zitezkeen, neurri ego-kiak hartuta. Bistan da umeek gezurrak esan ditzaketela, baina horretarako daude profesionalak, egia ateratzeko. Badira umeak bulbobaginitisarekin eta kitzi-

kapen sexualagatiko eritemekin itzuli direnak aitarekin egotetik eta medikuak txostena egin arren epaileak sinistu ez diena, ez dela aski proba esanda.

Zer ikusten duzu premiazkoa gai honetan?

Formazioa. Medikuek etengabe ari dira ikasten eguneratzeko, eta epaileak, zer? Gauza bat esango dizut: polizia bera prestatuago dago epaile asko baino. Prestatu behar ditugu haurrekin harreman zuzena duten guztiak: irakasleak, pediatriak, fiskalak, epaileak...

Bada kontu bat indarkeria matxistaz ari garen aldiro leporatzen zai-guna: gizonen kontrako gerra hasi dugula.

Ez da egia, baina. Hau ez da gizonen kontrako gerra bat, ez-pada gizonen eta emakumeen gizonetzko jakin batzuen kontra hasitako gerra. Gizon asko ere badira indarkeria matxista horren biktima. Zenbat mutiko, mutil gazte eta gizon daude gure artean betiko hondoak jota indarkeria matxistagatik? Film laburra aurkeztera unibertsita-tera joan nintzen batean, 21 urteko mutil batek hala esan zidan: "Eskerrik asko, eraildako umeengatik asko hitz egiten

delako, baina ez nire antzera suizidioa beste aukerarik ez dugula pentsatu dugun gazteez". Vicente Magro epaileak esan zidan 88 suizidio kasu zenbatuak zituztela nerabeen artean. Horietako askok eskola jazarpena-ren biktima izan zirelako hil zuten beren burua, baina Magrok esan zidan ikertzen ari zirela beste zenbat ziren etxean indarkeria matxista sufritu zutenak. Erasotzaileen semeen %35k aiten patroia jarraitzen dute, eta beste %75ak tratatu txarrak jasoko ditu noizbait harreman batean. **Eta beste bat da salaketa faltsuen kontua...**

Bai, betikoa. Ez dago ikusi nahi ez duena baino ergelagorik eta itsuagorik. Datuak argiak dira. Teresa Peramato fiskalak argi dio: %0,01 dira salaketa faltsuak. Biderkatu nahi izanez gero milagatik edo ehun milagatik.

"Zoritxarrez, gehiago lehenesten da gurasoaren eskubidea haurren eskubidea baino"

Zenbat lirarteke? Eta gizonen jartzen dituzten salaketa faltsuak? Zenbat dira? Haiek ere jartzen dituzte, baina inork ez du haiei buruz hitz egiten. Ez, emakume guztiak ez dira sanka, baina gizonetzko guztiak ere ez. Nik beti diot salaketa faltsuak jartzen dituztenek zigorrik gogorrena merezi dutela, min handia egiten ari zaizkielako benetako biktimei.

Eman dezagun itxaropenerako mezu bat.

Askok aurreratu dugu eta jende asko ari da lanean barru-barrutik hau aldatu ahal izateko. Kontua da oso motel ari garela aurrera egiten eta haurtzaroa oso aldi motza dela. Salatzen jarraitu behar dugu. Begira, dokumental honen harira hainbeste lekutatik deitzen ari ba-zaizkit, zerbaitegatik da, kontzientzia bat egon badagoelako. Emanaldi guztietan etortzen zait jendea, laguntzeko zer egin dezakeen galdezka. Bada zer bait.

Eta, zer erantzuten diezu?

Beren metro koadroan eragiteko eta, bereziki, biktimei sinisteko, ez daitezen bakarrik sentitu. Indar handia ematen du horrek. Gero, biktima bakoitzak

erabakiko du zer egin, baina, behintzat, senti daitezela ulertuak, askotan etxekoek ere bizkarra ematen dietelako. Joan den astean eskola batean izan nintzen, formazio bat ematen, eta kezkatuta zirudien mutiko batek zera galdetu zidan: "Nire lagun bati antzeko zerbaite ger-tatuko balitzaio, zer esan behar-ko lioke amari harremana utzi dezan? Kontra egin beharko lioke aitari?". Ezetz esan nion, ez egiteko kontra aitari, baina kontatzeko irakasleei edo konfiantzazko heldu bati. Eskolako irteeran zain neukan irakaslea, eta esan zidan bikote-harrema-netan muturrik ez sartzeko agindua zutela eurek. Onarte-zina da hori. Vicente Magro epaileak esan zidan *gizarte konplizea* esaten zaiola horri eta delitutzat hartzen dutela, gizartea ezin delako isildu ha-lako kontu baten aurrean.

Ezer gehitu nahiko zenuke?

Emakumeak ez garela elkarri min egitekoak, hori ere sinestara-zi digute eta. Beti topatuko dugu emakume bat laguntzeko gertu. Eta hemen hori da ga-rrantzitsua: gizon eta emakumeok elkarri laguntzea.



MIKEL INIGUEZ

DENTAL STUDIO

ODONTOLOGIA DIGITALA

INPLANTOLOGIA

PERIODONTZIA

AHO KIRURGIA

AHO-ERREHABILITAZIOA ETA ESTETIKA

SEDAZIO KONTZIENTEA

CBCT 3D TEKNOLOGIA

RPS: 81/25



WWW.INIGUEZDENTALSTUDIO.COM

INIGUEZ_DENTALSTUDIO

KALEBARREN PLAZA 4W. BEHEA / 20870 ELGOIBAR



616 68 03 11

URPEKARITZA

"Itsasoak egin digun oparia izan da manta-arraiaren ugaltzea grabatzea"

FERNANDO CALVO URPEKARIA

Umetatik du gustuko itsasoa Fernando Calvok (Eibar, 1967), eta 16 urterekin egin zuen urpekaritzako lehen ikastaroa. Ordutik hona, munduko hainbat itsasotan ibili da, urpeko bitxikerien bila



Fernando Calvo. F.C.



Bi manta-ar eme bat gorteatzen. Irudian, manta-arraiak isuria bota zuen unea. F. CALVO

Ainhoa Andonegi ELGOIBAR

Lehorrekia izan arren, umetatik dauka harreman berezia Fernando Calvok itsasoarekin. Egun, txalupa bat dauka Mutrikun, eta sarritan irteten da ur handitara, itsasoko faunaz gozatzen. Izurdeen, baleen, marrazoen eta beste hainbat animalia bultan ibilitakoa da, baina orkak falta zaizkio ikusteko. Orain dela hilabete batzuk, manta-arraiaren ugaltze momentua harrapatu zuten bete-betean, eta Kantauri itsasoa horrelako jazoera bat grabatua izan den estreinako aldia izan zen.

Azken bidaia azaroan egin duzu, Egiptora, Itsaso Gorriara. Nola joan da?

Oporraldia mundiala izan zen, baina azken txangoa egitera gindoazela auto-istripua eduki genuen, eta lesio handi batekin itzuli nintzen. Gauez urpean igeri egitera gindoazenean, eta auto-gidariak ez zuen ikusi errepidean zegoen zulo bat. Sekulako kolpea hartu genuen, eta, besteak onik irteten baziren ere, nik bizkarrezurrean hartu nuen min. Lehen diagnostia hango ospitale batean egin zidaten, eta, zorionez,

utzi zidaten etxerako hegaldia hartzen. Hona iritsi eta zuzenean joan nintzen ospitalera. Poliki-poliki hobetzen noa; eskerrak...

Nondik datorkizu urpekaritzarako zaletasuna?

Ume-umetatik gustatzen zait niri itsasoa. Gogoratzen naiz 7 urte nituela Frantses eskolatik irteten eta korrika etxera joaten nintzela, TVE2ko dokumentalak ikustera. Nire gustukoenak Jacques Cousteaurenak izaten ziren. Zortzigarren maila bukatu nuen, ama konbentzitu nuen uretako betaurrekoak, tutua eta hegatsak erosteko, eta oraindik akordatzeko naiz non erosi genituen ere! Eibarko Ereña armadenda; oso leku eskasa, baina, zalantzarik gabe, niretzako oparirik onena izan zen. Hondartzara joaten ginenean, gurasoek ez ninduten egun osoan ikusten; betaurrekoekin eta tutuarekin uretan egoten nintzen denbora guztian. 16 urte nituela, Eibarko Club Deportiboak urpekaritza ikastaroa antolatu zuen, eta aitari hura egiteko baimena eskatu eta eskatu jardun nuen. Adingabea nintzen, eta garai hartan aitaren baimena behar izaten

zen horrelakoetarako. Kostatu zitzaidan konbentzitzea, harenztzat ikastaro hark ez baitzuen ezertarako balio, baina, azkenean, eman zidan, eta ordutik ikastaro pila bat egin ditut. Gaur egun, Eibarko Club Deportiboko Urpekaritza Taldeko zuzendaritzako kide naiz. Orain dela zortzi bat urte, urpekaritza-instruktorre titulua ateratu nuen, eta ikastaroak ematen ditut tarteka. Nire zaletasuna da, eta egiten dudana guztia irabazi-asporik gabe egiten dut.

Urpekaritza mundu zabala da. Zer gustatzen zaizu gehien?

Niri eta Nerea Lazpiur nire bikotekideari gehien gustatzen zaiguna apnean igeri egitea da. Ahal dugun guztia oxigeno-botilarik gabe egiten dugu. Egunaren eta itsasoaren arabera

"Denetarikoa fauna ikusi dut dagoeneko; orkak falta zaizkit, eta sekulako gogoa daukat"

desberdina izan daiteke egoera, baina baldintza onak daudenean pare bat minutu arnasarik hartu gabe egiteko gaitasuna daukat. Gure artean, Nereak dauka errekorra: 56 metroko sakonerara iritsi zen apnean. Ni 45era iritsi izan naiz. Jendeak txangoa mendira egiten duen moduan, guk itsasora egiten ditugu irteera guztiak gure bidaietan, eta ordu pila bat ematen ditugu uretan, apnea praktikatzeko. Egiptoko azken bidaietan ere lehenengo astea horretan pasatu genuen, eta bigarren astean oxigeno-botilekin ibili ginen. Gauez urpean igeri egitea ere asko gustatzen zaigu, eta gauez bai, botilarekin joaten gara. Ez dauka egunarekin zerikusirik. Gauez itsasoko harrapakari guztiak irteten dira, eta horiek ikustea izugarria izaten da.

Txalupa daukazu Mutrikun, eta sarri irteten zarete itsasoko faunaz gozatzen. Zer ikusi daiteke hementxo itsasoan?

Fauna oso aberatsa daukagu hemen. Duela pare bat urte, marrazo bila joaten hasi ginen, eta uste duzuna baino gehiagotan aurkitzen ditugu. Ez daude

horren urrun; hamalau bat milia aurkitu izan ditugu. Goizean goiz irteten gara, eta badago gune bat itsas hondoa mila metroa hondoratzen dena. Hor pilotzen da itsas azpiko bizitza gehiena, korronteen eraginez elikagai asko dagoen lekua delako. Baleak ere ikusten ditugu tarteka; iaz, esaterako, bale urdina ikusi genuen. Baina desberdina da; izan ere, baleak nahi dutenean agertzen dira. Marrazoak, ordea, bilatu egiten ditugu. Hegaluze-odola edo sardinen koipea botatzen dugu uretara, eta haren usainera etortzen dira. Filmetan modukoa izaten da: jana bota, eta handik gutxira hasten gara marrazo-hegalak gerturatzen ikusten. Oso zirraragarria izaten da; baina filmetan, jendeak hegala ikusten dituztenean ihes egiten du hondartzatik, eta gu, aldiz, une horretan uretara sartzen gara.

Ez al da arriskutsua marrazoen ondoan igeri egitea?

Nik beti esaten dut animaliei ezer egiten ez badiezu haiek ere ez dizutela ezer egingo. Agian, gehiegi fidatzen naiz, baina hala jokatzeko dutela uste dut. Oso

poliki sartu behar da uretan, marrazoak ez beldurtzeko: mugimendu motelak egin, konfiantza eman... Iaz, sei-zazpi marrazorekin igerian ibili ginen, eta bideo batean entzun egiten da marrazo batek kameran ematen didan kolpea ere. Esperientzia benetan zirraragarria izan zen. Orkak falta zaizkigu ikusteko, eta sekulako gogoak daukat.

Itsas faunaz gozatzeaz gain, irudiak jasotzea ere gustatzen zaizue.

Bai; sekulako irudiak ditugu. Gure lagun taldean Quique Taliedo urpeko kameraria dago; Maite Erauskin eta Ana De Lara itsas biologoak ere lagunak ditugu, eta sarri etortzen dira gurekin; nire bikotekide Nerea Lazpiur ere itsasoko friki bat da; eta Iruñetik etortzen den beste bikote batek ere esperientzia handia dauka horretan. Gure Whatsapp taldearen izena *Shark frikis* da. Hori gustatzen zaigu, eta horretara irteten gara itsasora, faunaz goatzera eta hura grabatzera. Beste lagun batzuk Japonian daude orain, eskiatzen; beste batzuk parapentean ibiltzera joan dira, Hegoa-frikara; eta beste lagun bat Zeelanda Berrian dabil, bizikletaz. Lagun-talde frikia gara.

Marrazo bila irten zineten baten, sorpresa ere izan zenuten.

Bai; egun hura arraroa izan zen. Marrazo bila joan, eta ez genuen bat bera ere ikusi. Baina ez marrazorik, ez izurderik, ez beste-lako arrainik ere. Egun hartan hegaztirik ere ez zebilen, eta, normalean, hegaztiak izan ohi dira uretan zeozer dagoela aditzera ematen dutenak. Portura itzultzea pentsatu genuen, baina ez geneukan presarik. Iraila zen, uda oraindik, eta eguraldi ederra egiten zuen. Itsasoa bare-bare zegoen, eta itzulera poliki egitea erabaki genuen. Hartan geundela, izurderen bat agertu zen, baina ohikoan baino gutxiago, eta, halako batean, Quique txalupa geratzeko esaten hasi zitzaidan, oihuka, arraia ozeaniar bat ikusi zuela eta. Ikusi izan ditugu horrelakoak tarteka, baina ez da oso ohikoa, arraiak itsas hondoon, lurraren kontra, ibili ohi direlako. Quique uretan sartu zen, eta konturatu zen ez zegoela arraia bat, hiru zeuden. Kamera hartu eta uretara sartu nintzen ni ere.

Eta grabatu zenutena historikoa zela jakin zenuten.

Hiru manta-arraia zeuden, bi ar eta eme bat. Bi arrak emea

gorteatzeko zereginen ari ziren. Emearen hegaletara kateatzen ziren, bietako nork lortuko ote zuen lehian. Emea ere prestutasunez zegoela ikusten zen, eta ez zitzaien axola gu han egotea. Irudietan argi eta garbi ikusten da dena, eta bukaeran semena nola isurtzen den ere grabatu genuen. Berehala konturatu ginen irudi haiek zuten balioaz. Ura garbi-garbi zegoen, egun argitsua zen eta bideoa oso ondo geratu zen. Gure lagun Maite Erauskin Aztikio biologoari bidali genizkion irudiak, eta esan zigun urrea geneukala grabatuta. Ez zabaltzeko inon eta ez bidaltzeko inori, informatu beharra zeukala ea aurrez horrelakorik jasota zegoen. Arakatu egin zuen, eta, uste zuen moduan, aurrez ez zegoen horrelako dokumentaziorik Kantauri itsasoan. Pare bat hilabete pasatu ziren artikulua eta informazioa ondo prestatu bitartean, eta hasi ginen gure kontaktuei deitzen. TVEko *Aquí la tierra* saiora jo genuen, eta baita ETBra ere, eta bietan egin ziguten erreportajea. Itsasoak egin digun oparia izan da manta-arraiaren ugaltzea grabatzea. **Leku askotan egin duzu urpekaritza. Zein da lekurik interesgarriena?** Kalifornia Beherea da gehien gustatzen zaidan lekua. Egipton ere ibili izan naiz, Itsaso Gorrian, eta baita Floridan, Bahametan... baina, horren urrun joan gabe ere, oso leku politak daude urpean igeri egiteko. Europako lekurik onena, nire ustez, Cabo de Palos da, Murtzian. Belaontzian joaten gara urtero, lagun batzuekin, eta Cabrerara. Itsasoa da nire bizitza.

Hiru itsas argi dokumentala grabatu zenuten. Konta egiguzu esperientzia hura.

Nereak, Xabi Urresti hondarribiarrak eta hirurok elkarte bat daukagu, *Olatua, itsasoa eta natura* izenekoa. Askotan bidaiatzen dugu elkarrekin, eta izan gara Floridan, Bahametan eta beste hainbat lekutan. Argazkilaria da, eta belaontzi bat dauka Balearretan. Dokumental bat egin behar genuela bururatu zitzaigun, eta horretarako baimen guztiak eskatzen hasi ginen. Burokrazia-lanetan ohituta dago Nerea, eta Ministerioak baimen guztiak eman zizkigun. Columbres, Cabrera eta Cabo de Palosko itsasargietan grabatu genuen dokumentala. 50 bat urte bueltako hiru lagun aben-



Nerea Erauskin, urpean igeri egiten. F. CALVO



Marrazoekin igerian aritu ziren iaz. F. CALVO

tura kontatzen du, eta, horrekin batera, itsasoarekin lotura duten elkarrizketa interesgarriak jaso genituen. Arrantza Ministerio-ko idazkariari ere egin genion elkarrizketa! Eibarren aurkeztu genuen lana, Coliseoan, 400 lagun aurrean. Sekulakoa izan zen. Gero, Donostiako lehiaketa batera aurkeztu ginen, eta zazpigarren geratu ginen. Ez genuen saririk eskuratu, baina zazpigarren geratzea ia irabaztea bezala izan zen.

"Europar urpean igeri egiteko lekurik onena Cabo de Palos da, nire ustez, Murtzian"

Zer izan da urpekaritzan egin duzun gauzarik bitxiena?

Gauza asko egin izan ditut: iaz, esaterako, baimen berezi bat lortu genuen izokinak ikustera joateko Bidasoa ibaira. Ez nuen uste ezer aurkituko genuenik, baina lagunak baietz esaten zidan, ikusiko genituela, eta hala izan zen. Sekulako izokin basatiak grabatu genituen.

Argi geratu da itsasoa maite duzula. Zer dira zuretzat arrainak?

Beste jende asko bezala, ni ere kontraesanez beteta bizi naiz. Natura maite dut, arrainak izugarri gustatzen zaizkit ikusteko, baina jan ere egiten ditut. Profesionalki janari-banatzaila naiz, eta saltzen ditut ostrak, hegazuza... Tarteka, arrantzara ere joaten naiz: txipiroiak, berdelak... etxerako arrantzatzen dugu. Mendira joatea ere gus-

tatzen zait, baina itsasoak zoratu egiten nau.

Izan al duzu sekula sustorik itsasoan?

Floridan marrazo batzuk oldartu zitzaizkigun apur bat, eta baita Bahametan ere, baina esperientzia txarrena dokumentala grabatzen ari ginela izan nuen, Formenteran: salbera batek bizkarrean ziztatu ninduen. Barku azpian zegoela ikusi nuen. Hegatsak eta betaurrekoak hartu, eta neoprenorik gabe gerturatu nintzen harengana. Grabatzen hasi nintzenean atera zituen eztenak; hura izan zen abisua. Bizkarrean sartu zizkidan. Oso pozoitsua da, eta 24 orduz sekulako minez egon nintzen. Erizain bat geneukan ontzian, eta botika pila bat eman zizkidan, baina, hala ere, ia bi egun erdi zorabiatuta pasatu nituen. Medusek ere askotan ziztatzen gaituzte.

ELKARTASUNA

Datorren astean batuko dituzte Lesbosko kanpalekuetarako elikagaiak eta dirua

Herri bakoitzean elikagai konkretuak batuko dira, kalean, ikastetxeetan zein dendetan

Ubane Madera Zangitu DEBABARRENA
Martxoaren 9an, astelehena, hasi eta martxoaren 12ra bitartean, Lesbosen gatibu bizi diren asilo-eskatzailleentzat elikagai bilketa egingo da Debabarrenean.

Zaporeak elkarteak bultzatutako erronka solidarioak zortzigarren edizioa izango du, eta, Mallabian hasi eta Mutrikuraino, herri guztietan egingo dira jaki bilketak, herri bakoitzean elikagai jakina batuz (Ondoko taulan xehetasunak).

Hilabeteen kozinatzeakoa

Zaporeak elkartetik esandakoaren arabera, aurtengo edizioaren helburua aurreko urteetan bildutako gaingintzea eta 25.000 kilora iristea da; hilabetez kozinatze behar dutena lortzeko, hain zuzen.

Kalean jarriko diren mahaietan, ikastetxeetan eta dendetan batuko dituzte jakiak, eta, zenbait kasutan, puntu bereziak ere jarriko dituzte bilketa indartzeko. Esaterako, Elgoibarko Udalak jakinarazi du martxoaren 12an, eguna, 08:30etik 13:30era, bilketa berezia egingo dela Aita Agirre plazan, Kultur Gunearen aurrean.

Tuper solidarioa Eibarren

Erronka solidarioa Eibarko Erreal plazan egingo den tuper solidarioarekin amaituko da, martxoaren 14an, larunbata. Bertan, zozketak egingo dira, eta eskualdeko artisten arte-lanak zein inguruko jatetxeetan



Asteazkenean egin zuten erronkaren aurkezpena, Eibarko udaletxean. ...ETAKITTO

6.000

EURO KOSTATZEN DA KONTAINER BAKOITZA

500

UME BIZI DIRA KANPALEKUETAN

afariak irabazteko aukera egongo da. Zaporeak elkarteak esan duenez, aurtun tuper bakarria izango da: arroz oilaskoduna eta fruta ale bat, 5 euroan.

Kontainer bakoitza 6.000 euro

Horrez aparte, ekarpen ekonomikoak ere behar ditu ekimenak, batutako elikagaiak Lesbosera ailegarazteko. Kontainer bakoitza bidaltzea, gutxi gorabehera, 6.000 euro kostatzen da. Ekarpene ekonomikoak jasotzeko kontu-zenbakia honako hau da: ES53 2100 2724 8101 0066 3988.

Halaber, ekarpen ekonomikoak indartzeko, ekimenen parte hartu nahi duten enpresei "ondo funtzionatu duen proposamena" egin diete aurtun ere, "langileei beren soldatatik 5 euro bideratzeko aukera ematea, enpresak kopuru hori bikoiztu dezan Zaporeakentzat".

Errefuxiatu-fluxu handia

Zaporeak elkarteko Josean Orue-ta Txorio-k esandakoaren arabera, errefuxiatu-fluxu handia dute Lesbosko kanpalekuetan. Gehienak afganiarrak, afrikarrak

eta palestinarrek dira. Baina Ekialde Hurbilean pairatzen ari diren triskantzen ondorioz, siriarrek ere badaude, eta iran-darrak ere iristen hasita daude. Asteotako egoera ikusita, gainera, pentsatzekoa da ugaritu egingo dela hara babes bila doan pertsona kopurua.

2.100 pertsona inguru

Oruetak jakinarazi du kanpalekuetan 2.100 pertsona inguru bizi direla, tartean, 500 bat ume, eta pertsona guztiendako otorduak prestatzen dituzte. Gaineratu duenez, ezkonduak urtebetez egoten dira; ezkondu bakoak eta Zaporeaken sukaldean lanean daudenak, berriz, hiru urtez; eta badago bat bederatzi urte daramatzana, sukaldean lanean, baina paper barik.

Gobernua, trabak jartzen

Oruetak gogora ekarri du kanpalekuak jendez gainezka dardela, eta bizi izaten ari diren baldintzak ezin gogorragoak direla, kanpalekuetan ez baitute apenas ezer eguneroko bizi-moduari aurre egiteko. Zeresanik ez, eguraldiaren baldintzak okertzen badira; neguan, adibidez. "Gainera, Greziako Gobernua beti dabil trabak jartzen, eta jendea beldurrez bizi da, gehienek ez baitute paperik", esplikatu du Zaporeakeko kideak.

Orain, Gazara ere bai

Bestalde, hark jakinarazi du Gazako bizilagunendako elikagaiak ere hasi direla bidaltzen Zaporeak elkartetik. Abendu-urtarrilean bidali zuten lehen kontainerra, eta, Israelek geldi izan bazuen ere, GKE baten laguntzarekin lortu zuten hura sarraraztea. "Orain ere ari gara Gazarako gauzak apartatzen eta Donostian dugun biltegian gordetzen".

Non zer batuko den herriz herri

Arroz luzea

- Ermuan
- Soraluzen
- Deban

Garbantzu pedrosillanoa

- Elgoibarren

Pardina-dilista

- Eibarren

Makarroi-tutuak

- Mallabian
- Mendarón

Arrain-kontserbak

- Mutrikin

Ekarpene ekonomikoak ere behar dira, elikagaiak bidaltzeko

Aurtun, 25.000 kilo elikagai batu nahi dituzte, hilabetez kozinatze behar dena

2.100 bat lagun bizi dira Lesbosko kanpalekuetan, eta 500 baino gehiago umeak dira

GAZTE MUGIMENDUA

Ernairen Gazte Topagunearen aurkezpena, gaur, Mutrikin eta Deban

Izaro Aulestiarre

DEBABARRENA
Ernai gazte antolakundeak Abadiño (Bizkaia) aukeratu du 2026ko Gazte Topagunearen kokalekua gisa. Ekitaldi nazionala apirilaren 2tik 5era egingo dute, eta, beste urte batez, gazte independentistentzako topaketa, presakuntza eta eztabaidarako espazioa eskainiko dute bertan. "Tailerrak, hitzaldiak, jarduerak

kulturalak eta gazteen elkargunerako guneak izango ditugu, egungo gazteen kezkek eta interesak modu kolektiboan lantzeko", aurreratu dute. Bonuak salgai daude jadanik, besteak beste, Internet bidez: labur.eus/gaztetpgn.

Egitarraren nondik norakoak eta Gazte Topagunearen dinamika xehetasunez azaltzeko

helburuarekin, aurkezpen-saioak antolatu ditu Debabarreneko Ernaik eskualdean. Saio horietan egitasmoaren funtzionamendua, antolaketa-eredua eta parte hartzeko moduak azalduko dituzte, eta, bide batez, bertaritzen direnen zalantzak argitzen saiatuko dira.

Bi aurkezpen izango dira, gaur, martxoak 6: bata, Mutrikin, Zubixan, 18:30ean; eta bestea, Deban, Arrano Elkartearen, 20:00etan. Saioetan parte hartzeko deia egin diete inguruko herrietako gazteei.



Eskualdeko gazteak, azken Topagunean. ERNAI

Barrena[!]

BATZEN GAITUEN
DISTANTZIA

0
km



HEDABIDEKIN
ERE BAI

NIRE USTEZ

Elektrizitatea gara!



ANE UGALDE

Handia izango da, ederra, pozgarria. Horrelakoa izango da aurtengo Martxoaren 8ko manifestazio ostean gozatu ahal izango dugun musika ikuskizuna.

Badira hilabete batzuk, azken urteotan musika ikuskizun horretan parte hartzen dugunon artean ideia piztu zela: zergatik ezugu datorren Martxoaren 8an zerbait handia egiten? Zea Mays musika taldeak 2024an *Elektrizitatea* kantuarekin egin zuen bertsiotik abiatuta etorri zen Soraluzeko 100 emakume batu eta elkarrekin hori abesteko ideia.

Helduko gara 100 emakume elkartzera? Inoiz ez gara hainbeste emakume plazan batu abestera. Lortuko dugu?

Bai lortu, eta baita gainditu ere! Mezua zabaltzen hasi ginen lehen momentutik zerrenda hazten hasi zen, eta 130 emakume inguru elkartuko gara, azkenean. Amak, alabak, ahizpak, lagunak, ezagunak, denak gogotsu. Polita izan da ikustea nola zabaltzen eta saretzen joan den mezua herritarren artean.

"Oraindik ez da igandea iritsi, baina dagoeneko handia izan da, ederra, pozgarria"

Horrelako ikuskizunetan inoiz parte hartu izan ez duten emakumeak ere animatu dira, batera abesteak eta batera egoteak ematen duen babesaz animatuta.

Urtarrilean egin genuen lehen entsegua. Honelakoak esaten hasi ginen: "Letria ez dakit oso ondo"; "nik ez dot oso ondo abesten"; "ahal dotena egingo dot"; "ni zure albuari, bestela galduko naiz"... Eta honelakoekin bukatzea pasa gara: "Zu, ba, ez da bape gaizki geratu, ezta?"; "badakit abestixa, barren, polita entzuten da!". Denon arteko konfiantzari eta konplizitateari esker, hasierako zurruntasun eta beldurrak gainditzen joan gara.

Igandean, aldarrikapena gozamenarekin batuko dugu. Oraindik gure gizarte honek berdintasunarekiko egiteko duen lan handiaren aurrean batasuna, indarra eta talentua jarriko dugu Soraluzeko emakumeok herriko kale eta plazetan.

Zorionak eta eskerrik asko denoi. Eskerrik asko hau dena mugitzen eta gorpuzten egon zareten taldekideoi, musikariei eta abeslariari, entsegu ostean jana eta edana ipini digutenei, Musika Eskolari, Udalariei, BARRENari eta baita zuri ere. Hark, zuk eta nik, denok bat eginda izugarritzko energia sortu baitugu herrian! Elektrizitatea gara! Oraindik igandea ez da iritsi, baina dagoeneko handia izan da, ederra, pozgarria.

GUTUNAK

Emakumeak

VICTORIA MIQUELE
ELGOIBAR

Gaur, otsailak 20, harriduraz irakurri ditut gurekin, emakumeekin, lotutako bi albiste. Biak ikaragarri latzak.

1. Berdintasunaren alde egiteko, espazio publikoetan burka eta niqba erabiltzea galarazteko legea aurkeztu du PPK.

Burkak, hein batean, ikustea eta entzutea eragozten dio emakumeari, bero handia ematen dio, ehuna oso lodia delako, eta emakumea bere arnasan eta malkotan egosten da. Emakumeak, jakina, gizonaren zerbitzuan eta atzean beti.

Bada, ematen du emakume ezkertiari eta independentistei jantzi hori gustatzen zaiela, ez baitute eskuineko alderdi batek proposatutako lege honen alde egin. Emakumeak / politikeoa.

Nik, ezkertiarra beti, tirantedun soinekoak jantziko ditut udan, dagoeneko besoko okelak zintzilik izan arren. Falta zena!

2. Andres printzea atxilotuta izan dute hainbat orduz. Kargu publiko batean jokabide desegokia izan duelakoan atxilotu dute.

Ez dute atxilotu Epstein kasuarekin lotuta emakume gaztetxoak –adingabeak batzuk– abusatzegatik. Ez bera eta ezta bere familia ere.

Izan ere, emakumeok beti izan gara eta izango gara bigarren mailako pertsonak: gerretan bortxatuak eta bizitza sozialean ablazioaren biktima, gizonezko zaharrek

ezkontzera behartuak eta trukerako moneta beste kontu askotan.

Emakumeak (*mujercitas*) gara.

Gure kale-izendegiak, gure historiaren eta balioen ispilu

J.L.A
DEBA

Debako kaleen izenek, hein handi batean, gure historia erakusten digute, izenda dezaketenen boterea eta balioak, eta ezjakintasunez edo axolagabekeriak, batzuetan, ahortzi ohi dugun iragana ere bai.

1870eko kale-izendegitik izen batzuk mantendu egin dira; lehen, gaztelaniaz eta, orain, euskaraz: Soga kalea, Iturkale, Gurutze kalea, San Roke kalea, Portu kalea... 1936an, frankismoaren garaipenak aginte berriari zegozkion izenak ezarri zizkigun: Plaza del Generalísimo, Plaza de España, 23 de Septiembre, Plaza de Navarra –erreketeen omenez–... 80ko hamarkadan, aldaketa politikoen ondorioz, Plaza Zaharra, Gudari plaza, Ostolaza, Markiegi eta Nafarroa plaza, adiera berrituta, bihurtu ziren.

Beste batzuk, aldaketa sozialak gorabehera, kanpoan gelditu ziren, eta emakume bakar baten izena agertzen da, Tene Mujika, plaza ia ezezagun batean. Eta emakumeak ikusaraztea bada kontua, Lasturko Milia, Alosko Usua, Sasiolako Estibalitz eta beste hainbat idazle ere baditugu. Eta gauza bera gertatzen da gure herri

kulturako ordezkariarekin: Uztapide, Zubeltzu Zar, Sakabi...

Ezjakintasunak, axolagabekeriak edo beste arrazoren batek Lersundi izena mantendu du gure kale-izendegian, nahiz eta Zaragozan (1848), Erroman (1849), Madrilén (1852) eta Kuban bere historia errepresiboa izan.

Lersundi Kubako kapitain jenerala izan zen 1866-1869 bitartean, 1867an izan ezik, eta uhartearen independentziaren aurkako eta esklabotza mantentzeko borrokaren arduraduna izan zen.

1868ko urriaren 10ean lehertu zen esklabotzaren aurkako eta askapen nazionalerako lehen altxamendua. Lersundik, Espainiako armada kolonialaren ahulezia ikusita, milaka boluntario erreklutatu zituen matxinoak menderatzeko.

Memoria demokratikoaren zale garenok zer pentsatua ematen digu kale-izendegian haren izena mantentzeak, hemen ongile izan arren han esklabo zale eta zapaltzaile izan zelako. Kaleen izenak balio sinboliko handia du. Helburua ez da memoria ezabatzea, gure balio demokratikoak balioztatzea baizik.

Petronor, aski da!

A.I.Z.
ELGOIBAR

Muskizko Petronorreko plantan bentzeno isuria izan zen joan den astean, eta herritarrek kalera atera ziren asteburuan, "aski da!"

Barrena[®]
DEBABARRENEKO
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria
Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.

Erredakzio batzordea
Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Dorleta Vidal,
Izaro Aulestiarte.
Kazetariak
Ainara Argoitia, Ainhoa Andonegi,
Alex Turrillas, Ander Gomez,
Asier Orbea, Dorleta Vidal,
Egoitz Unamuno, Izaro Aulestiarte,
Nerea Bedialauneta,
Ubane Madera.
Diseinu arduraduna
Oier Larreategi.
Zuzentzailea
Sergio Azkarate.
Kidetzat eta banaketa
Alex Turrillas.
Maketazioa
Zalao Arnaiz, Oier Larreategi.
Publizitatea
Leire Rubio.

HARPIDETZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA
Deba 20820
Ifar Kalea 12, behea
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA
Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZKO EGOITZA
Soraluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025
ISSN: 3101-2647
Tirada: 10.000 ale
Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Elgoibarko Udala



Ermuko Udala



Mallabiko Udala



Mendaroko Udala



Mutrikuko Udala



Soraluzeko Udala



esateko. *Meatzaldea ez dago salgai, Petronor, aski da eta Gu hiltzen ari zarete* leloak ikusi ziren manifestazioan. Berriz ere enpresaren eta Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa jo-puntu. Izan ere, ez da Meatzaldeako bizilagunek halako istripu baten ondorioak jasan behar izan dituzten lehen aldia. Abenduan gasolina depositu batean izandako istripuak bentzeno maila nabarmen igotzea ekarri zuen; eta azken istripu hori baino asteburu bat lehenago ke laino beltzak eragin zituen Muskizen argindar eten batek.

Eusko Jaurlaritzak zabalduetako bertsio ofizialaren arabera, gorabehera bat izan omen zen gasolina depositu batean, eta, ondorioz, bentzeno isuria izan zen. Hori goizean gertatu bazen ere, Eusko Jaurlaritzak gauera arte ez zuen eman etxetik ez ateratzeko gomendioa. Bitartean, bizilagunek gai kutsakorrak arnastu zituztela agerian geratu da.

Bizilagunak haserre daude, eta agintariengan jarri dute erantzukizuna: administrazioak ezikusiarrena egiten du, gertakariei garrantzia kentzen die, ez du enpresa zigortzen eta ez du gardentasunez informatzen. Isuria berriro ez errepikatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko eskatu diote Jaurlaritzari.

Azkenik, Petronorren webgunean sartu zarete? *Nor garen: Zero emisio garbietara iristeko Repsol Taldeak 2050erako ezarritako helburuarekin konprometituta dagoen enpresa gara.*

Petronorren berrikuntzan eta teknologian inbertitzen dugu. Espiritu horri esker, 'bigarren eraldaketa handi' bat abiarazi dugu; 2019aren amaieran hasi zen, Repsol Taldeak 2050erako emisio garbi zero dituen enpresa izateko konpromisoa hartu zuenean, klima-aldaketaren aurkako borrokari buruzko gizarte-eskariari erantzuteko. Eraldaketa honek Petronor industria energetiko anitz gisa ulertzeko ikuspegiari erantzuten dio: oso eraginkorra den industria, energia eta industriaren ekosistema integratu baten erdigune bihurtzen dena, eta energia garbiaren, ekonomia zirkularraren eta berrikuntzaren kluster baten buru dena.

Gezurrek bide motza dutela...

Ireki bidea euskarari!

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Badator Korrika! Badator euskararen alde egiten den ekimenik handienetarikoa! Hamaika egunez, Euskal Herri luze-zabalean, milaka lagun mobilizatuko gara *Euskara gara* aldarripean. Hala, euskararen aldeko olatu erraldoi hori iritsi aurretik, eta, nolabait, baita olatu hori elikatzeke asmoz ere, Korrika abiatu baino egun batzuk lehenago, Euskal Herrian Euskarazetik, *Ireki bidea euskarari!* ekimena jarri dugu abian.

Euskaltzaleei luzatuko diegun erronka haxe izango da: astebetez, martxoaren 9tik 15era, erdaldundutako Euskal

Herriko bide-seinaleak ezabatzea eta euskarari lehentasunezko lekua ematea. Euskal Herrian Euskarazetik ohikoa izan da horrelako ariketa masiboak proposatzea, eta, aurtan, Korrikaren testuinguruan, horixe planteatu nahi diegu euskaltzaleei.

Gaur egun, Euskal Herriko hizkuntza paisaia euskaldunon zapalkuntza egoeraren adibide argia da. Oso kasu gutxitan topatuko dugu euskara hutsean oinarritutako paisaia linguistikoa. Gehienetan, erdarek lagunduta topatuko dugu; askotan, gainera, bigarren mailan. Hainbat kasutan, euskara ukatua da eta ez zaio lekuri txikiena ere ematen. Horregatik, EHETik hizkuntza paisaia iraultzeko proposamena egiten dugu, euskarari, Euskal Herriko berezko hizkuntzari, lehentasunezko lekua emateko.

Bide-seinaleetan, kale/toki izendegietan edo karteldegietan euskarari lehentasunezko lekua emanez: euskara prestigiatzen dugu; euskara ikasteko, edo, gutxienez, ulertzeko beharra sortzen dugu; gure ingurua euskaraz ulertzeko eta izendatzeko baliabideak ematen ditugu; euskaraz garela lau haizeetara argi zabaltzeko tresnak sortzen ditugu; eta euskarazko leku-izenak berreskuratzeko aukera gisa ere probestu genezake. Horregatik guztiagatik, martxoaren 9tik 15era, ireki diezaiozun bidea euskarari, eta Korrikak zeharkatuko dituen bide bazterretako

kartelek ere, konplexurik gabe, esan dezatela: *Euskara gara.*

Oharra: ezabaketetarako, *Euskaraz* jartzen duten pegatinak sortu ditugu; nahi izanez gero, eskatu *ehe@ehe.eus* posta elektronikora idatzita. Era berean, ekintzen irudiak posta elektronikoko berera igortzea asko eskertuko genuke; gero, EHEko sareetatik horiei zabalpena emateko.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **BARRENAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturgunea 3-3, 20870 Elgoibar / *barrena@barrena.eus*

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI

**ITXURA
TXARRA
DAUKA
MUNDUAK**



Bigarren eskuko azoka antolatu dute Udalak eta ikastetxeek hilaren 12rako

Ainhoa Andonegi

Bigarren eskuko azoka antolatu du datorren egunerako, martxoaren 12rako, Udaleko Ingurumen Arloak, Herri Eskola, Ikastola eta IES Elgoibar BHI ikastetxeekin lankidetzan. Eskola Agenda 2030 programaren barruan egingo dute ekimena, eta helburua da ikasleen eta familien artean kontsumo arduratsua, berrerabilpena, ekonomia zirkularra eta halako balioak sustatzea. Debegesa Debarbarreneko garapen-agentziak hogeit urte daramatza eskualdeko udalekin elkarlanean Eskola Agenda 2030 proiektua bultzatu eta koordinatzen.

Izaera solidarioa

Ekitaldiak izaera solidarioa izango du: bildutako dirua Nuala elkarteari bideratuko diote, eta saldu gabe geratzen diren artikulua Gurutze Gorriari eta Caritasi emango dizkiete.

Azoka Aita Agirre plazan egingo dute, 09:00etatik 13:00etara, eta bertan ikasleek zein irakasleek parte hartuko dute; guztira, 600 bat lagunek. Herriarrek egoera onean dauden bigarren eskuko artikulua erosteko aukera izango dute; besteak beste, liburuak, jostai-

luak eta arropa. Horren harira, arduradunek herritar guztiak animatu nahi dituzte ekimenean parte hartzera, haien partaidezarekin ikasgeletan egindako ikaskuntza indartu eta komunitate jasangarriago, solidarioago eta kontzienteagoa erakitzeke.



Egitasmoaren sustatzaileak. ASIER ORBEA

Kirol ikastaroen eskaintza zabaldu du Elgoibarko Udalak

A.A.

Elgoibarko Udalak kirol ikastaroen eskaintza zabaldu du martxoan, elgoibartarren ongizatea eta aisialdi aktiboa sustatzeko. Horri esker, ordutegi zabalagoa eskainiko diete erabiltzaileei, eskaladan eta spinningean.

Eskalada praktikatzeko hasi edo apur bat sakondu nahi dutenentzako talde berria sortu

dute, helduentzako. Astelehenean izango da, 20:00etan, kiroldegiko rokodromoan. Era berean, spinninga egiteko bigarren talde bat jarriko dute martxan, astelehen eta asteazkenetan, 19:00etatik 20:00etara.

Yoga, berria

Yoga, berriz, orain jarriko dute martxan. Hatha yoga modali-

tatearen bidez, parte-hartzaileek jarrera fisikoak, arnasketa kontziente eta erlaxazio teknikak praktikatzeko dituzte. Eskoletan honako alderdi hauek lantzen dira: gorputz-jarrerak (*asanas*), arnasketa-teknikak (*pranayama*), erlaxazioa eta meditazioa, hain zuzen. Astelehenean emango dute eskola, Olaizaga kiroldegian, 19:00etatik 20:00etara.

Informazio gehiagorako edo izen-emateetarako: 943 74 44 15 edo olaizagakiroldegia@elgoibar.eus



Abiadura Handiko Trenaren lanak. JON GARATE

'Noraezean' erakusketa aurkeztuko du Jon Garate elgoibartarrak

Gaurtik martxoaren 21era arte egongo dira ikusgai argazkiak, Kultur Etxeko erakusketa gelan

A.A.

Jon Garate Ondarrek (Elgoibar, 1987) Informatika Ingeniaritza ikasketak egin zituen, eta, hamabi urtez lan horretan jardun ostean, bere zaletasunari bide ematea erabaki du. 2013tik hona dihardu argazki kamera soinean hartuta argazkiak ateratzen, eta 2021a ezker buru-belarri sartuta ari da lan horretan. Irudia aitzakia hartuta, gizakia eta mundutartasuna ezagutzen dabil. Oraingoan, Abiadura Handiko Trenaren obrak Debagoienean eta Durangaldean izan duen eragina jaso du kamerarekin. Bi urte eta erdi eman ditu eraikuntza-lanen inguruan, EAEko bailara menditsuetan.

Noraezean

Euskaldunontzako horren sinboliko eta identitarioak diren ingurune naturalen hondatze

eta galerak sortutako mina islatu ditu argazkilari elgoibartarrak lan horretan. Bestetik, horrelako garapen batek atzetik daraman begirada, sakoneko mundu ikuskera, non jatorriz heterogeneoa eta kaotikoa den ingurune bat begirada geometriko, neurtu eta kalkulatu batez nola ordezkatzeko den jaso du: "Hori guztia, inoiz iristen ez den balizko hitzmate baten izenean, baina zeinen eraginak orainean agerikoak, nabariak eta itzulezinak diren. Hortik sortzen da *Noraezean*".

Martxoaren 21era arte

Gaur inauguratuko dute erakusketa, 18:30ean, eta hilaren 21era arte egongo da ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Asteleheneetik zapatara zabalduko dute, 18:30etik 20:30era. Domeketan itxita egongo da.

EXPRESS ESKAINTZAK!

BOSCH WUU28T64ES
ARROPA GARBIGAILUA

- 8kg-ko karga
- 1400 bira/min
- Karga-etendaldia funtzioa
- Speed Perfect programa
- Amaiera geroratua

459 €

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487
bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

Jantzi ezazu estiloz zure ohea.

Tamainu standar guztiak, zure ohera moldatzen den neurria aukeratu dezakezu, homarekiko babesla lortuko duzu.

Akabera eta koloreetan aukera zabala, kalitate goreneko polister eta polipielaren artean aukeratu ahal izango duzu.

Martxoan, %5eko beherapena oheburuetan!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar
943 74 44 57 - 685 75 69 78 - www.textillagunak.com

500 lanpostu sortuko ditu Danobaten Roboost proiektuak

50 milioi euroko inbertsioarekin abiatuko dute proiektua

Ainhoa Andonegi

Roboost proiektua aurkeztu du Danobat kooperatibak Elgoibarren duen egoitzan, eta, Xabier Alzaga Danobateko kontseilari ordezkariak azaldu du Euskadin robot industrial aurreratuen belaunaldi berri bat diseinatzea eta fabrikatzea dela proiektuaren helburua, horrekin batera teknologia estrategiko horren ildo-ko balio-kate sendo bat finkatzeko. Era berean, nabarmendu du beste kategoria teknologiko batean kokatzen den egitasmoa dela; hain zuzen, robot industrialen. Haren esanetan, lehiazteko modua aldatu egingo dute, eta eskakizunetara hobeto moldatzeko modua izango dute. Mikel Jauri Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuak, bestetik, esan du Euskadik makina-erremintan lider izaten jarrai dezan, "inork baino azkarrago" egin behar dugula "korrika". Horretarako, anbizioa, berrikuntza eta elkarlana funtsezkotzat jo ditu.

500 lanpostu

Roboost proiektuak 50 milioi euroko inbertsioa izango du, eta



Robotaren irudia. IREKIA

500 lanpostu sortzea ahalbidetuko du: zuzeneko 200 enplegu eta zeharkako 300. Sortuko dituzten enpleguen %11,5 teknologikoak izango dira. Horrez gain, 35 milioi euro baino gehiago bideratuko dituzte ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jardueretara. Danobat izango da ekimenaren buru, eta hamazortzi enpresa txiki eta ertainentzako traktore-lanak egingo ditu. Elkarlan horren xedea izango da euskal industriaren ekosistema indartzea. Gainera, sektore-

ko hainbat klusterren laguntza izango dute, AFM Fabrikazio Aurreratuko Klusterraren gidaritzapean, eta Hegan Aeronautika eta Espazioko Klusterraren parte-hartzearekin. Era berean, bultzada bat ekarriko du prestazio handietako robot industrietarako teknologia berriak garatzeko, eta ZTBES Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko hamar zentro teknologiko eta eragile inplikatuak ditu, Elgoibarko Ideko zentro teknologikoaren gidaritzapean.

Ikastolan egingo dute Pilota Eguna, bihar



AINHOA ANDONEGI

Eguraldi iragarpena dela-eta, Pilota Eguna Ikastolako frontoian ospatzea erabaki dute antolatzaileek. Ikastolan egin dute orain arte pilota txapelketa, eta bihar jokatzeko dituzte finalak, 10:30etik

aurrera. LH eta DBH arteko ikasleek jokatzeko dituzte finalak, bikoteka. Hamabost partida izango dira, eta, amaieran, guraso eta irakasleek barru sisteman jokatzeko aukera izango dute.



Pare bat hilabete iraungo du obrak. ASIER ORBEA

Transformazio elektrikorako zentroa lekualdatzeko lanak hasi dituzte

A.A.

Merkatu plazaren eraikinean dagoen Transformazio Elektrikoko Zentroa lekuz aldatzeko lanak otsailean hastekoak ziren, baina, azkenean, joan den astelehenean hasi zituzten.

Iberdrolaren sare elektrikoari lotuta dago Transformazio Elektrikoko Zentroa, eta argindarra banatzen du herriguneko hainbat kaletara eta Urazandi auzora. San Frantziskoko iturriaren atzealdera lekualdatuko dute, eta lur azpian sartuko dute, Aita Agirre eraikina berritzean hango transformadorearekin egin zuten modu berean.

360.000 euro

Elgoibarko Udalak egingo ditu lan horiek, eta, ondo bidean, apirilean edo maiatzean amaitzea aurreikusten dute arduradunek. Hain zuzen ere, 360.000 euroko aurrekontua dute.

Lekualdatzea amaitutakoan hasi ahal izango dira Osasun Zentro berria eraikitzen; dagoeneko atera dituzte lanak lizitaziora. Merkatu plaza eraitziko dute aurrena, eta gero hasiko ditu Osasun Sailak anbulatorio berriko obrak. Udal agintariek jakinarazi dutenez, lanok "irailean edo urrian" izango dira.

Mendian segurtasuna bermatzeari buruzko hitzaldia antolatu dute

A.A.

Korrika Kulturalaren barruan, mendiko arriskuen prebentziari buruzko hitzaldia antolatu du AEK Euskaltegiak, Morkaiko mendizale elkartearekin elkarlanean. Zigor Egia (Amurrio, 1975) Euskal Mendi Federazioko Segurtasun Batzordeko arduradunak emango du saioa, euskaraz. Egiak eskarmentu handia dauka mendian, bereziki, eskaladan eta eskian, eta, besteak beste, mendiaz modu seguruan gozatzeko aholkuak emango ditu Elgoibarren. Martxoaren 10ean izango da hitzaldia, 19:00etan hasita, Aita Agirreko areto nagusian.

Gizonek, istripu gehiago

Mendian prebentzioa eta segurtasunaren kultura sustatzeko ekintzak bultzatzen dihardu Euskal Mendizale Federazioak, eta asmo horretan kokatzen da saio hori ere. Federatutako pertsonen istriputasaren datuak eman dituzte, saioaren garrantziaz jabeazteko; iazko datuen arabera, 100 federatutik 6,5ek istripuren bat izaten dute urtean zehar. Istripua izan duen pertsonaren profil ohikoena 35 eta 55 urte bitarteko gizonezkoa da, eta, emakumeak federatuen %33 badira ere, istripuen %25 baino ez dira haienak.

NIRE USTEZ

Poztu



IZARO ETXEGIBEL
SORALUZE
EUSKARA IRAKASLEA

40. Goya sariak banatzeko ekitaldia egin zuen Bartzelonan Espainiako Zinema Akademiak igaro larunbatean. *Maspalomas* euskal filmeko interpretazioagatik aktore protagonistarik onenaren saria jaso zuen Jose Ramon Soroizek.

Hunkituta eta eskertuta, filmeko pertsonaia gorpuzteak oso zoriontsu egin duela aitortu zuen. Gala zuzenean jarraitu ez zenutenok ere entzungo zenituzten adierazpenak, jada, edo ikusi irudiak.

Saria eurena dela esan zien zuzendariei Soroizek, eta ekipo guztiarena. Zoragarria dela gertatzen ari zaiona, oso zoriontsu egin dutela, eta munduko Vicente guztiak ere hala izan daitezela. "Baita ere eskaini nahi dizuet Goya hau jaso dudanean poztu zareten guztioi, zuena ere bada eta!".

Lander Arretxearen *Ezinezko misio bat* izeneko artikuluan irakur daiteke Euskal Herrian euskarazko ikus-entzunezkoak inoiz nagusi izango badira, dela zineman, sarean edo telebistan, arrisku handiagoak hartu ditugulako izango dela, edota ikus-entzunezkoen eremutik haragoko

eraldaketak gertatu direlako. Sortzaileek misio edo zama osagarri bat dute, pantailetan dago etorkizuna, euskal hiztun gehiago eta trebatuagoak sortzea, ekoiztea edo munduratzeta da helburua.

Zer gara, gu geu ez bagara? Filmaren bukaeran, mutil gazte bat ikusten du Vicentek hondartzan; hurbiltzen zaio, eta irribarre polita duela esaten dio. Eta ez hori bakarrik, besteengan gustatzen zaiguna esan egin behar dela. Eta Franco Battiatoren musika entzuten da. Planoa urruntzen den heinean, urertz zoragarria bistaratzen da, itsasoa urdin, eguzki izpiak indartsu uretan.

KLIK

Igogailua



JOSE RAMON
CABRERA
ARGAZKILARIA

Bernardo Ezenarro eta San Roke kaleak lotzen dituen igogailuan ilunabarreko islak, egun gris batean. Bizitzako guztia unearen eta ikusten den ikuspuntuaren arabera da.



SEMAFOROA

Ibaia zikin dago



"Euriteen ondoren, ibaia zikin-zikin geratzen da. Dagokionari hori garbitzeko eskatu nahi nioke, benetan itsusi ikusten delako ibaia, baina, aldi berean, jendeari kontzientzia apur bat eskatu nahi nioke, eta ez ditzala zakarrak ibaira bota".

Jarlekua behar da



"Aita Agirreko autobus-geltokian jarlekua behar da. Herri barruko autobusa adineko jendeak erabiltzen du, batez ere, eta ez da eroso zutik egotea autobusaren zain. Maalan bi jarri zituzten, eta hemen ere halako pare bat jarleku ondo etorriko lirateke".



Kirola garesti dago Elgoibarren



"Gehiegizkoa iruditu zait aurtengo kuotan izan dugun igoera. Azken bi urteotan asko garestituta da kiroldegiko urteko abonua, eta esango nuke ordaintzen duguna eta jasotzen duguna ez daudela orekatuta. Kuotak igotzen dira, baina zerbitzuak ez dira hobetzen".



Kolore morez jantzita hasi da martxoa, eta halaxe jarraituko du hilabete osoan

Elkarretaratzea egingo dute domekan, 13:00etan, Kalegoen plazan

Ainhoa Andonegi

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, hilabete osorako ekintzak prestatu dituzte Elgoibarko hainbat eragilek elkarlanean. Udalak, Lilak, Ongarrik, Haizeak eta Elgoibar Kirola elkarteak egitarau bateratua aurkeztu dute, eta Emakume Feministen Asanbladak aparte antolatu ditu beste zenbait ekintza. Ekitaldi batzuk egin dituzte dagoeneko, baina asteburuak ere kolore morea izango du.

Hasteko, *Esne berriketan* bertso saio literarioa antolatu dute gaurko. Uxue Alberdik idatziz jasotako ipuinei Iban Urizar Amorantek jarriko die musika, eta Onintza Enbeita eta Miren Amuriza arituko dira bertsotan. 19:00etan izango da, doan, musika eskolan.

Emakume Feministen Asanbladak antolatuta, bestalde, tri-



lazko irudi bat. ASIER ORBEA

ki-poteo feminista izango da gaur, 19:00etan, Kultur Etxe aurrean hasita. Haren segidan, pintxo-afaria egingo dute Kultur Kafean. Domekarako, berriz, Karakatera irteera antolatu dute. 09:00etan abiatuko dira, Mekatik.

Beste mendi irteera bat ere egongo da bihar, adin eta tipologia guztietako emakumeentzat. 09:00etarako jarri dute hitzordua, Kalegoen plazan, eta Sallobentera egingo dute ibilaldia. Hango elkartean hamarretakoa egin

eta talde-argazkia atera ondoren, bi aukera izango dituzte parte-hartzaileek: herrira itzuli edo *Sallobenteko sekretuak* ibilbidea egin.

Domekan, elkarretaratzea

13:00etan elkarretaratzea egingo dute Kalegoen plazan, eta han bilduko dira herriko feministak, Uluka Batukaren erritmora. Jarraian, Emakume Feministen Asanbladak manifestazioa egingo du.

Datorren asterako ere iragarri dituzte ekitaldiak, eta izango dira, besteak beste, filmak, hitzaldiak eta tailerrak: martxoaren 10ean, esaterako, zaintzan diharduten langileentzako hitzaldia egingo dute, Lilan, 17:00etan. Eguaztenean, bestalde, *Jone, batzuetan* filma proiektatuko du Ongarri zineklubak, Herriko Antzokian. Filmak 20 urteko Jone gaztearen bizitza kontatzen du. Lehen maitasuna bizi duen aldi berean, aitaren parkinson gaixotasunaren ondorioak areagotu egiten dira. Bilboko Aste Nagusian, Olgarekin igarotzen duen hilezkortasun-sentsazioaren eta aitzak bere gaixotasuna zeharkatzeko duen

modu bereziaren arbuioaren artean biziko da Jone. Neska gaztea helduaroan sartuko da ustekabeen. Hausnarketa proposatuko dio filmak ikusleari, bizitzaz. 21:00etan izango da emanaldia, eta sarrerak aurrez erosi daitezke, *herrikoantzokia.eus* webgunean.

Autodefentsa tailerra

Emakumeentzako autodefentsa tailerra ere antolatu dute, martxoaren 14rako. Plaza mugatuak izango dira, eta izena emateko eskatu dute antolatzaileek, Olai-zaga kiroldegian (943 74 44 15). 14 urtetik beherakoek heldu batek lagunduta hartu dezakete parte.

Horrez gain, Ana Goitia umoristak *Katana* bakarrizketa egingo du martxoaren 15ean. Emakumeen ahalduntzeaz arituko da Goitia, umoretik. Aita Agirre kulturgunean izango da, 12:30ean, doan.

Hilaren 29an, berriz, Emakumezkoen Master Cup pilota txapelketa hartuko du Ikastolako frontoiak, eta emakumezkoen eskubideei buruzko hausnarketa saioa izango da azken ekintza, hilaren 30ean.

Leire Egañak zazpigarren txapela irabazi du Euskadiko Ehiza Xehe Txapelketan

A.A.

Ehiza xeheko bi txapelketa jokatu zituzten, zapatuan, Zanbranako *El Castillo* ehiza-barutian: emakumezkoen Euskadiko txapelketa eta Elgoibarko txapelketa.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako emakumezko ehiztari onenak lehiatu ziren 2025. urteari zegokion Euskadiko Ehiza Xehe Txapelketan, eta Leire Egaña Bastida ehiztari elgoibartarrak jantzi zuen irabazlearen txapela. Horrenbestez, zazpigarrengez irabazi du Egañak txapelketa hori. Bost eper eta sei galeper ehizatu zituen, eta 3.455,5 puntu batu. Ederne Sarasola sailkatu zen bigarren postuan, lau eper ehizatuta -2.354,5 puntu-, eta Anuska Bretañak egin zuen hirugarren, eper bat eta galeper bat ehizatuta -601 puntu-. Gipuzkoarrak izan ziren lehen hiru sailkatuak.

Elgoibarko txapelketa

La Union elkarteak antolatzen duen gizonezkoen Elgoibarko Ehiza Xehe Txapelketa, bestalde, Arkaitz Egañak irabazi zuen, bost eper ehizatuta; Iraitx Txurruka izan zen txapeldunorde, lau eperrekin, eta Tomas Carrascosa igo zen podiumeko

hirugarren koskara, hiru eper ehizatuta.

Beteranoetan ere egañatar bat gailendu zen: hain zuzen, Leire eta Arkaitz Egañaren aita Jose Mari. Hiru eper ehizatuta irabazi zuen proba; bigarren lekuan Javier Uzuriaga geratu zen, bi eperrekin.



Egañatarrak, Zanbran. L. EGAÑA

Konpondu dute San Rokeko baranda



A.A.

Iaz azaroan istripua izan zuen auto batek San Rokera igotzeko bidean, eta, baranda apurtuta, ia trenbideraino erori zen. Gidaria onik atera zen. Joan den astean hasi zituzten baranda berria jartzeko lanak, eta dagoeneko amaitu dituzte.



Ane Martinez eta Ander Osoro, Atxutxiamaiako arduradunak. AINHOA ANDONEGI

'Saretzen': familietan euskararen transmisioa eta erabilera areagotzeko

Elgoibarko Izarraren Atxutxiamai Sailaren familia-proiektu berria da

Ainhoa Andonegi

Elgoibarko Izarraren Atxutxiamai aisialdi taldea etapa berri batean sartuta dago, eta aldaketa nagusia izan da egitetik eragitera pasatu direla. Horren barruan, *Saretzen* familia-programa jarri dute martxan, Udalarekin lankidetzan eta Kutxa Fundazioaren laguntzarekin. Helburua da 0 eta 5 urte arteko umeak dituzten familietan euskararen transmisioa eta erabilera sustatzea, horretarako espazio eroso eta seguruak eskainita. Ander Osoro Atxutxiamaiako arduradunak honela azaldu du: "Ohartu gara euskarara jada ez dela balio erantsia Elgoibarko aisia-eskaintzan, eta hori positiboa da, euskara bermatuta dagoelako aisialdian. Hori dela eta, gure egitekoa euskalduntasuna lantzea da; sentimendua, alegia".

Horretarako, barrutik eragiten dute, estrategikoak diren taldeetan; kasu honetan, familietan. Etxeko hizkuntza hautuak berebiziko garrantzia duela ohar-tarazi nahi diete familiei, eta, jakina, hautu hori euskararen aldekoa izan dadila sustatu nahi dute. Hasiera batean, familia

euskaldunengan jarri dute arreta; hau da, dagoeneko euskaraz egiten duten familia horiek euskaraz gehiago egin dezatela lortu nahi dute: "Etxeko transmisioa beti izan da indargunea euskararen kasuan, baina azken urteotan indar hori ahuldu egin dela konturatu gara, eta uste hori baieztatu egin digu Siadecok Elgoibarko euskararen egoerari buruz egin duen azken ikerketak". Hala ere, Siadecoren datu baten arabera, Elgoibarko hamar familiatik zortzik garrantzi handia ematen diote seme-alabek euskaraz jakiteari. Testu-inguru horretan sortu dute egitasmo hori. Jakitun dira Elgoibarko hizkuntza aniztasuna zabala dela, eta saiatu dira ahalik eta egitasmo osatuena prestatzen, euskarara hurbildu nahi duen inor kanpoan ez la-

gatzeko. Sinistuta daude familia euskaldunak saretzen eta trinkotzen hasi behar dutela, horiek izan daitezen gero gainerako familien erreferente.

Lau lan-lerro

Programa horretan, familiei espazio seguru eta erosoak eskaini nahi dizkiete, euskaraz hitz egiteko eta haien arteko harremanak sendotzeko. Jean Piagetek haur baten garapenean bereizten ziren estadioak definitu zituen, eta haren teoriarik oinarritu dira *Saretzen* egitasmoa diseinatzeko. Piagetek lau estadio bereizi zituen, eta horietatik lehenengo biak hartu dituzte kontuan: familiak bakarka bizi diren etapa eta sozializatzen hasten direna. Hortaz, 0-2 adineko etapan, familiek ez dute hartu-eman handirik izaten beren egoeran dauden beste familiekin. Egoera horretan dauden familiek elkar ezagutzeko eta kezkek partekatzeko sortu dituzte Familiagunea eta Solasaldia atalak; eta, aldiz, familiak sozializatzen hasten direnerako diseinatu dituzte Tailerrak eta Planak.

Euskaraz hitz egiteko eta harremanak izateko espazioak eskainiko dizkiete familiei

FAMILIAGUNEA

Familiak batzeko eta euskaraz aritzeko gunea izango da, gurasoek dituzten kezkez eta beharrez jarduteko espazio segurua. Besteak beste, euskararen transmisioan eta erabileran aurrerapausoak emateko estrategiak landuko dituzte. Hilean behin bilduko dira, astelehenetan, 17:00etatik 18:30era, Udal Ludotekan, eta Naiara Martin izango da gidaria.

SOLASALDIAK

Gurasotasunak sortzen dituen zalantzei erantzuteko espazioa izango da. Horretarako, gai bakoitzaren gaineko azalpenak emango dituen adituak gonbidatuko dituzte. Zalantza horiek argitzeaz gain, partaideen arteko ezagutza eta hartu-eman sustatuko dira. Urtean hiru saio egitea aurreikusi dute. Partaideen gaitasun linguistikoaren arabera, aldibereko itzulpen zerbitzua eskainiko dute.

TAILERRAK

HH-3 eta HH-5 arteko umeak dituzten familientzako tailerrak egingo dituzte, gurasoen eta umeen arteko harremanak sendotzeko. Martxotik ekainera bitartean, hilean behin egingo dituzte, igandeetan, 16:30etik 18:30era, Udal Ludotekan. Horrez gain, haurdun dauden emakumeentzako eta haien bikotekideentzako beste tailer bat egingo dute, familiako hizkuntza aukeratzeak duen garrantzia azaltzeko.

PLANAK

Hilean behin jolasa kalera aterako dute, jolasgune irekiek harremanak sortzeko ematen dituzten aukerak aprobetxatzeko. Horrez gain, bi txango egingo dituzte, familien arteko bizipen positiboak sustatzeko, euskaraz. Euskara ondo pasatzearekin lotu nahi dute, sinisten dutelako modu horretan areagotuko dutela euskararen erabilera. Ekainean eta azaroan egingo dituzte irteerak.



-SARETZEN-

Martxoaren 17ko greba orokorrean parte hartzera deitu dituzte herritarrek

Ainhua Andonegi
1.500 euroko gutxieneko soldata ezartzeko eta erabaki hori Euskal Herrian hartzeko eskubidearen alde, greba orokorrean dute Hego Euskal Herrian martxoaren 17rako ELA, LAB, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuek. Espainian 1.184koa da gutxieneko soldata, eta hori igotzea eskatzen dute, besteak beste. Diferentzia hori Nafarroako, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko gobernuek jartzea proposatzen dute. Beste datu batzuk ere eman dituzte sindikatuek: esaterako, 307.000 langilek 1.500 eurotik beherako soldata kobratzen dute; gehienak, emakumezkoak edo langile migratuak. Sindikatuek nabarmendu dute gutxieneko soldata 1.500 eurora igotzeak eragin positiboa izango lukeela, bereziki, kolektibo ahulentzat. Era berean, salatu dute 2013tik 2023ra %53,4 handitu

direla enpresen irabaziak, baina KPIa %24,4 igo dela epealdi berean, eta soldatak, %16,9.

Arrazoiak, "soberan"
Elgoibarko Greba Batzordeak talde-argazkia atera du aste honetan, herritarrei greban parte hartzeko dei egiteko. Sindika-

tuen esanetan, "soberan" daude grebarako arrazoiak, eta gutxieneko soldata igo eta hemen erabakitzeaz aparte, arrakala matxista eta arrazistak murriztea, pentsioak eta prestazioak handitzea eta sortzen den aberastasuna modu justuagoan banatzea eskatu dute, besteak beste.



Talde-argazkia atera dute. GREBA BATZORDEA

Stock Kale Azoka, gaur eta bihar

Neguko merkealdien amaierarekin bat eginez, Stock Kale Azoka antolatu du Txankakuak aste bukaerarako



Salgaiak denden atarietara aterako dituzte merkatariek. ASIER ORBEA

Asier Orbea ELGOIBAR
Eguenean hasi zuten eta zapatuta bitartean egingo dute. Parte hartuko duten Txankakuako 23 establezimenduek denda atarira aterako dituzte beren produktuak, ordutegi honetan: 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bari-

kuan eta 10:00etatik 13:00etara zapatuan.

400 euro saritan
Erosketak egiten dituzten herritarren artean 400 euro zozkatuko dituzte, 100 euroko erosketa-bonutan. Astelehenean jakinaraziko dituzte irabazleak.

Mayi Mujikak hirugarren postua eskuratu du Asturiasko Kangas Mountain lasterketan

Asturiasko eta gertuagoko mendietan lehiatu dira Elgoibarko lasterkariak

Asier Orbea
2.500 mendi korrikalari batu ziren aurreko asteburuan Cangas de Onis herrian (Asturias, Espainia), Kangas Mountain lasterketan parte hartzeko. Hainbat distantziatan lehiatzeko aukera ematen du probak, baina 33 kilometrokoa da jatorrizkoa –original trail deitzen diote antolatzaileek–. Distantzia horretan Marta Martinez Abellan izan zen azkarrena emakumezkoetan, 3.25.37ko denborarekin; Barbara Ruiz Paramo sailkatu zen bigarren postuan (3.36.05); eta Mayi Mujika iritsi zen helmugara hirugarren postuan, 3.39.42ko marka eginda.

Murua eta Lariz, Kalamuko Igoerako podiumean
Gertuagoko mendietan lehiatzeko aukera ere izan zuten mendi lasterkariak joan zen asteburuan.



Kalamuko Igoerako podiuma.

Sei urteko etenaldia izan eta gero, Kalamuko Igoera "berpiztu" egin du Etxebarriko Gazte Asanbladak, eta otsailaren 28an jokatu zuten lasterketaren hamalagarren aldia izan zena. Partaideek 5,75 kilometroko



Emakumezkoen podiuma, Kangas Mountain probako helmugan.

luzera eta 600 metroko desnibela zuen ibilbidea osatu behar zuten, Olaia taberna paretetik irteten eta Kalamuako tontorre-raino. Oier Etxeberria azpeitiarra izan zen azkarrena, 32 minutu eta 16 segundoko denbora-

rekin; eta bi elgoibartar sailkatu ziren bigarren eta hirugarren postuetan: irabazlearengandik bost segundora heldu zen helmugara Hasier Murua (32.21) eta 28 segundo gehiago behar izan zituen Iñigo Larizek (32.44).

Martxoaren 18an egingo du Jubilatuen Biltokiak urteko batzarra

Batzar orokorrera deitu ditu bazkideak Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak. Martxoaren 18an egingo dute batzarra, asteazkena, Jubilatuen Biltokian (San Franzisko 21). Hainbat gai jaso dituzte gai-zerrendan; besteak beste: zuzendaritza talde berriko kideen aurkezpena, 2025ean egindako ekitaldien errepasoa eta iazko diru kontuen onarpena, 2026rako prestatu duten jarduera-plan orokorraren aurkezpena eta jarduera berriak sustatzeko ekarpenak.



Jubilatu Biltokia.



MARTXOAREN 8A

Marina Lledok kontzertua emango du Martxoaren 8an San Agustin aretoan

AINARA ARGOITIA MENDARO

Marina Lledoren hirukoteak kontzertua emango du domekan, Martxoaren 8an, San Agustin kultur gunean (18:30). Mesa 7 elkarteak antolatu du kontzertua, Mendaroko Udalaren, Gararock taldekoen eta Uztargi tabernako laguntzarekin. Marina Lledoz gain, beste bi musikari handi arituko dira oholtzan: Santi Greco baxu jotzailea eta Delaney Stöckli biolin jotzailea.

Marina Lledo (Madril, 1989) abeslari eta konpositore espainiar ezaguna da, jazza eta musika brasildarra uztartzeagatik nabarmendu dena. Arturo Lledo gitarrista ezagunaren alaba da eta 2015ean argitaratu zuen lehen diskoa, *Noche rara*, zeinak Alemaniako grabazio kritikarien elkartearen saria eskuratu zuen. Talentu handiko musikaria da Lledo, ahots delikatukoa. Sona handiko nazioarteko jaialdi eta agertokieta ibilitakoa da, eta



Marina Lledo. SARETIK HARTUTAKOA

musikari aipagarriekin egin izan du lan, hala nola haren aita Arturo Lledo, Reinier Elizarde *El Negrón*, Georvis Pico, Pepe Rivero, Ariel Bringuez, Maureen Choi eta Sebastian Merlin.

Sarrerak salgai

Kontzerturako sarrerak 15 euroan jarri dituzte eskuragai,

eta Uztargi tabernan eros daitezke aurrez, nahiz eta egunean bertan ere eskuratu ahal izango diren, San Agustin aretoan. Martxoaren 20rako, berriz, Gonzalo del Valen kontzertua iragarria dute antolatzaile berberak. Taldearekin etorriko da Del Val, eta kontzertua San Agustin kultur gunean izango da, 21:30ean.

Mendaroarrek eta, bereziki, Plaza auzokoek ez dute hutsik egin Aingeru Guardako jaietan

A.A.

Aingeru Guarda Eguna ospatu zuten domekan Mendaroko Plaza auzoan, eta, eguraldia lagun, jende multzo handia batu zen jai eremura. Plaza auzoko ondoengoe antolatzen dute auzoko zaindariaren omenezko jaiak, Udalaren laguntzarekin, eta hasi zirenetik hemezortzigarren urtea izan dute aurtengoa. Jaiak berak ohiko osagaiak izan zituen. 12:00etan meza esan zuen Txomin Zabaleta abadeak Aingeru Guardako ermitan, eta meza-ostekoa Ameikutz musika eskolako trikitilariak girotu zuten. Ohi legez, herri-kirol saioaz gozatzeko aukera ere izan zuten bertaratutakoek. Julen Kañamarek (Arostegi, Nafarroa, 1989) eta Aratz Mugertza (Murtiku, 1988) aizkolariak lehiatu ziren nor baino nor gehiago. 48 bat ontzako enborra nork azkarago ebaki izan zuten lehenengo egin beharrekoa, eta nafarra gailendu zen. Ez zen hor amai-



Herritarrek aizkora jokoa ikusten domekan, Aingeru Guardako jaietan. ION URBIETA



Julen Kañamarek eta Aratz Mugertza, aizkora. A. ARGOITIA

Zozketa

Eguneko lanak amaituta, motozerra hartu eta lanerako erabiltako enbor-zatietatik lauburu

tzat lauburua. Plaza auzoko barazkiz betetako otzara bat ere zozkatu zuten, eta Maite Amuatetik jaso zuen.



MARTXOAREN 8A

Elkarretaratzera deitu du Udalak



A. ARGOITIA

Arantxa Urretabizkaia idazleak zahartzaroari buruzko hitzaldia egin zuen eguaztenean udaletxean, eta gaur, ostirala, hilak 6, *Ovarios verdes fritos* antzezlanaren emanaldia izango da San Agustin kultur gunean, 18:30ean. Bi ekintzak Martxoaren 8aren harira antolatu ditu Mendaroko Udalak. Iganderako, berriz, elkarretaratzera deitu ditu herritarrek. Herriko Enparantzan elkartuko dira, 13:30ean.

'Mendaron bizi, Mendaron erosi' kanpaina, martxan

Erosketak herrian bertan egitera animatu nahi ditu Mendaroko Udalak herritarrek, era horretan herriko merkataritza sustatzeko, eta, horretarako, *Mendaron bizi*, *Mendaron erosi* kanpaina hasiko du gaur, martxoak 6. Urteko lehenengo kanpaina izango dela zehaztu dute, eta gehiago ere izango direla iradoki.

Gaur hasi eta apirilaren 6ra bitartean, 30 euro kontsumitu ahal izango dituzte herritarrek hogeiei euro ordainduta. Guztira hamabi denda eta zerbitzu batu dira kanpainara. Honako hauek, hain zuzen: Anton harategia, Artfruit fruta denda, Coviran supermerkatua, Fernandez botika, Galle-tiak gozotegia, Leire arropa denda, Lutximak eta Olatz ile-apaindegia, Mendaroko Txokolateak, Morroskillo denda eta Roteta eta Sonia janari dendak.

Mendaro Herria Saria lasterketa jokatu dute martxoaren 14an

Mendaroko Herria V. Saria kadeen lasterketa antolatu du Mendaroko Txirrindulari Elkarrekin martxoaren 14rako, zapatua. 16:00etan abiatuko da tropela, Herriko Enparantzatik, eta Bergarako labe garaietaraino joan-etorria osatuko dute; 48 bat kilometro guztira. Ondo bidean, 17:12rako izango dira txirrindulariak bueltan. Lasterketa horretan Debarreneko txirrindulariek ere parte hartuko dute; tartean, Mendaro bertako hiruk: Oier Arriolak, eta Zugatz eta Enaitz Iraolagoitiak. Antolatzaileek laguntza eskatu dute egun horretan bide-bazterrek zaintzeko: mte.mendaro@hotmail.com.

Herriko historiaurrea ezagutzeko irteera martxoaren 15ean

Kilimon bailarara txangoa antolatu dute martxoaren 15erako Arno guraso elkarteak, Suharri kultur elkarteak eta Euskal Herriko Unibertsitateak. Mendaroko eskola-umeentzako irteera izango da, herriko aberastasun arkeologikoa eta geologia ezagutzeko antolatu dutena. Presapen elkartuko dira, 10:00etan, eta handik oinez barneratuko dira Kilimon bailaran, Alvaro Arrizabalaga eta Maria Jose Iriarte EHUKo Arkeologia irakasleak eta Suharriko kideak lagun hartuta.

Antolatzaileek arropa eta oinetako erosok eramateko gomendioa egin dute.

Zabortegeian istripu gehiago gertatzeko arriskua dago, kontrolik ez dagoelako

Ingurumen Sailburuordetzak Eusko Legebiltzarrerera eramandako aktan jartzen duenez, iazko irailean Zaldibarko zabortegeian egindako ikuskaritzan Ingurumen Baimen Bateratuarekiko 29 hutsegite antzeman ziren

Dorleta Vidal

2025eko irailaren 9an, Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saileko Ingurumen Sailburuordetzaren Ikuskaritza Zerbitzua Zaldibarko zabortegeian izan zen, Verter Recycling enpresak Ingurumen Baimen Bateratuan (IBB) jasotakoa betetzen ari zen egiaztatzeko. Txostena idatzita zegoen iazko urriaren 10erako, baina aurten irten da argitara, otsailaren 27an, Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarrean aurkeztu eta gero, EH Bilduren ordezkari Ander Goikoetxeak hala eskatuta.

Ikuskaritzaren aktan jartzen duenez, Zaldibarko zabortegeian 29 hutsegite aurkitu dira IBBan jasotako neurriekiko, eta horrek adierazten du enpresa erantzulea –edo, kasu honetan, hura osatzen zuten pertsona fisikoak– ez dela betetzen ari legeak agindutakoa. Horren ondorioz, istripu gehiago gertatzeko arriskua dago gaur egun, instalazioen mantentze-lanik ezak narriadura nabarmena eragiten duelako, txostenetan jasotzen denaren arabera. Era berean,

kontrolik gabeko isurketak gertatzeko arriskua ere badago, baita lursailaren egonkortasuna gutxitzea ere, lixibiatuak metatu izanagatik.

Hutsegiteak, puntuz puntu

Txostenean puntuz puntu jasotzen dira zabortegeiaren erantzuleen hutsegiteak, atalka banatuta. Hala, airearen kalitatearen atalean zehazten da zabortegeiak ez duela sortutako gasak tratatzeko sistematik eta ez duela egiten gasen konposizio-kontrolik instalatuta dauden gasa biltzeko tximinietan, besteak beste. Lixibiatuen esparruan, txostenak dio emari-neurgailua ez dagoela erabilgarri, ez dagoela pH-neurgailu edo eroankortasun-neurgailurik eta lixibiatuak isurtzeko muga-balioak gainditzen direla. Horrez gain, jasota geratu da instalazioak ez duela erantzukizun zibileko aseguruurik, eta IBBren titularrak ez duela mantentze-lanik egiten ingurumen-kalteak prebenitzeko eta saihesteko.

Datu horiek kontuan hartuta, Goikoetxeak beste dokumentazio-eskaera bat erregistratu du, Eusko Jaurlaritzako Industria,



2023ko urrian, Eusko Jaurlaritzak lanak egin zituen zabortegeian, egonkortasun-baldintzek okerrera egin zutelako. IREKIA

Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun sailburu Mikel Jauregik azaldu dezan zer neurri hartu diren Verter Recyclingeko jabeek zabortegeian gertatzen ari denaren erantzukizuna euren gain har dezaten; adibidez, zehapen-espedientearen xehetasunak.

Udalaren eskaera

Ikuskaritze-akta argitaratu eta egun gutxira, martxoaren 3an, hain zuzen ere, Ermuko alkate Beatriz Gamiz Jauregirekin harremanetan jarri zen, "bilera tekniko eta instituzionala egiteko premiazko deialdia eskatzeko", Udalaren webgunean adierazten denez.

Era berean, eskatzen ditu ikuskapen-jarduerak, errekerimenduak eta 2020tik aurrera agindutako neurri zuzentzaileak jasotzen dituen txostena; enpresa titularraren betetze-maila eta, hala badagokio, ez-betetzeen aurrean hartutako neurriak; drainatzeko eta lixibiatuak ponpatzeko sistemaren egoerari buruzko informazioa eta egonkortasunari eta hari lotutako arriskuei buruzko balorazio teknikoak, besteak beste.



Txostenean jaso dute 2024an ipinitako aldi baterako estalkia apurtuta dagoela. E. J.



Estalkiari bere horretan eusteko, pneumatiko bat jarri dute gainean. JAURLARITZA

RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK
Valdespina Markesa 16 • ERMUA
605 71 10 81

Barrena
943 743 704
688 769 657
Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENA astekarian
edo
www.barrena.eus
webgunean

ALBOKA
MUSIKA ESKOLA
943 17 12 98
albokamusikaeskola@hotmail.com

Abesbatza	Gitarra	Perkusioa
Banda	Gitarra elektrikoa	Pianoa
Biolina	Gitarra baxua	Saxofonoa
Biolontxeloa	Musika Hizkuntza	Trikitixa
Flauta	Klarineta	Tronboia
	Panderoa	Tronpetak

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen

Bilbo-Eibar linea indartu egingo dute martxotik aurrera

Ermutik igarotzen den Bizkaibusen Bilbo-Eibar eta Eibar-Bilbo linea indartu egingo dute martxoa bukatu baino lehen, Udaleko arduradunek jakinarazi dutenez. Aldaketa horri esker, herritarren beharretara egokitzen den autobus zerbitzu publikoa eskaintzen saiatuko da Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioak, Mugikortasun eta

Turismoa Sustatzeko Saila. Haren arabera, lanegunetako zerbitzua hobetuko da, zehazki, "eskari handiko ordu-tarteei erantzuteko".

Egoera aztertu

Ermuko alkate Beatriz Gamiz eta Hirigintza eta Jasangarritasun Alorreko zinegotzi Rosa Maria Cid aurreko ostiralean batu ziren sail horretako arduradun Sonia Perezekin. Bileran, garraio publikoaren egoera aztertu zuten eta hobetzeko moduak landu zituzten.



laz egindako elkarretaratzea, Martxoaren 8a plazan. ERMUKO UDALA



Egitarau zabalak prestatu dituzte herriko eragileek Martxoaren 8ra begira

Mugimendu Feministak, Itaiak eta Udalak egingo dituzte ekintzak

Dorleta Vidal

Asteak daramatzate herriko taldeek eta instituzioek aurtengo Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruko jarduerak prestatzen, eta horietako asko egin dira jada. Gehienak, hala ere, igande honetan izango dira, Martxoaren 8an.

Alde batetik, Emakumeen Asanblada eta Nü Shu Gazte Feministak batzen dituen Ermuko Mugimendu Feministak kalean emango du asteburu osoa, *Batu feminismora* lelopean. Izan ere, biharko, hilak 7, bertso saio feminista antolatu du, Orbe Kardinala plazan, 18:30ean, eta bertan izango dira Izaro Bilbao eta Enara Gallastegi bertsolariak; bukatutakoan, karro-poteo morea egingo dute. Hurrengo egunerako, hilaren 8rako, mobilizazioa antolatu dute, plazan, 13:00etan, eta 15:00etan bazkari autogestionatua egingo dute leku berean, Iraia abeslariak girotuta. Euria eginez gero, merkatu plazan bazkalduko dute.

Itaiaren proposamena

Itaiak, Emakumeon Antolakunde Sozialistak, otsailaren 21ean ekin zien Martxoaren 8ko ekintzei.

Bi asteko tarte horretan, *Emakume langileok askatzeko, batu borrokara!* egitarauaren barruan egon diren bost ekintza egin ditu bailarako hainbat herritan, eta asteburu honetan egingo ditu azken biak: alde batetik, bihar, larunbata, autodefentsa feminista tailerra emango du Eibarko Ronin klubean, 11:30ean; bestetik, mobilizazioa egingo du Ermuan hilaren 8an, 12:30ean, Martxoaren 8a plazan, hain zuzen ere.

Udalaren ekintzak

Ermuko Udalak askotariko jarduerak egingo ditu datozen egunotan, baina ekitaldi nagusia gaur izango da, martxoak 6: ekitaldi instituzionala egingo dute Martxoaren 8a plazan, ikasleen artean egin den kartel lehiaketako irabazleari saria emango diote eta loreak banatuko dituzte. 12:00etan izango da.

Larunbatean, bertso saioa egingo da plazan, Izaro Bilbaorekin eta Enara Gallastegirekin

Egun berean, 19:00etan, *Filipa Balbina* clown ikuskizuna ikusteko aukera egongo da Lobiano Kulturgunean. Sarrera doakoa da, baina aldeaz aurretik jaso beharko da, Emakumeen Topalekuan. Eta 20:30ean, Bely Basarte abeslariak kontzertua emango du Ermua Antzokian, 20:30ean.

Hari horri jarraituta, martxoaren 12an, osteguna, *Tribial feminista* kafe-partida jokatu da Emakumeen Topalekuan, 17:00etan, eta leku berean, Jabeakuntza Eskolako bi ikastaro izango dira: lehena, martxoaren 11n, *IA irizpidez eta ongizatez: ulertu, erabili eta zaindu*, 17:30ean; bigarrena, *Nire gorputza, nire boterea: neskentzako autodefentsa tailerra*, maiatzaren 9an, 17:0etatik 20:00etara.

Azkenik, hilaren 31ra arte, Martxoaren 8ko kartel lehiaketara aurkeztutako lanak erakusteko egongo da ikusgai Emakumeen Topalekuan, 08:00etatik 15:00etara eta 16:30etik 19:30era –ostiraletan, goizez bakarrik–. Martxoaren 13ra arte, aldiz, M-8rako liburu-aukeraketa eta irakurketa gida jaso ahal izango da Topalekuan bertan, edo Udal Liburutegian.

'Laburbira' ikusteko aukera egongo da martxoaren 12ko zineklub saioan

Emanaldia bukatutakoan, solasaldia egingo dute Ekaitz Bertiz zuzendari sunbildarrearekin

D. Vidal

Martxoaren 12an, osteguna, *Laburbira*-ren 23. edizioa ikusi ahal izango da Ermua Antzokian, 20:30ean. Zazpi ikus-entzunezko lanek osatzen dute aurtengo film labur sorta, eta emanaldiak 80 minutu iraungo du orotara.

Horrek bi helburu nagusi izango ditu: alde batetik, euskal zinemagintza hauspotzea, zinemagileei beren filmak erakusteko aukera emanez; eta, bestetik, herritarrei euskaraz sortutako film laburrak ezagutaraztea, proiektuaren sustatzailer Taupa Mugimenduaren esanetan.

Aurtengo egileak dira Amaia San Sebastian, Ekaitz Bertiz, June Asua, Elixabet Nuñez, Aitor Gametxo, Ainhoa Urgoitia eta Ane Cuesta, eta, Euskal Birusa Elkarte Kulturalek antolatutako emanaldia bukatutakoan, solasaldia egingo dute Ekaitz Bertiz zuzendari nafarrarekin. Bertizek 2025ean grabatu zuen *Erreka zoko hortan* filmari buruz hitz egingo du, eta bertaratutakoek galderak egiteko aukera izango dute.



Bertizek ikusleekin jardungo du. E.B.

'Labur-labur'

Jarduera horrekin lotuta, *Labur-labur* film laburren lehiaketa antolatu dute aurtten, hiru-garrenez, Euskal Birusaren eta Gazte Asanbladaren ekimenez. Lehiaketa batxilergoko ikasleei dago zuzenduta, eta martxoaren 1ean bukatu zen lanak aurkezteko epea. Epaimahaiak lanak aztertzen dihardu egunotan, eta martxoaren 12an sari banaketa egingo du Institutuan bertan, estreinakoz, 10:00etan. Guztira, 300 euro banatuko dira, hainbat saritan.

Autobusa antolatzeko asmoa dago Korrikaren hasiera ikustera joateko

D. Vidal

Atharratzen (Zuberoa) hasiko da aurtengo Korrika, martxoaren 19an, eta Ermuko eta Mallabiko Korrika batzordeek bertara joateko autobusa antolatzeko asmoa daukate. Autobusa 08:45ean irtengo litzateke, Mallabitik, eta Ermuko Korrikazaleak jasoko litzateke gero; itzulera, aldiz, 19:00etan izango litzateke.

Martxoaren 13a baino lehen

Antolatzaileek azaldu dutenez, zerbitzu hori eskaini ahal izateko gutxieneko plaza kopuru bat bete beharko litzateke; beraz, azpimarratu dute ezinbestekoa dela aldeaz aurretik izena ematea. Interesa dutenek mezua bidali



Autobus zerbitzua Korrikara. K.B.

beharko dute ermua@korrika.eus helbidera, datorren ostirala baino lehen, hilak 13.



Petrilean eserita, ezkerretik eskumara, Aicha Hamideddine eta Eneritz Iruretagoiena ermuarrak; lurrean, Naia Aizpurua. ITAIA



"Premiazkoa ikusten dugu matxismoaren aurkako euste-horma bat eraikitzea"

ENERITZ IRURETAGOIENA ITAIKO KIDEA

Eneritz Iruretagoiena ermuarrak parte hartu du Martxoaren 8ko egitaraua prestatzen, 'Emakume langileok askatzeko, batu borrokara!' lelopean egingo dena

Dorleta Vidal

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekintza antolatu ditu Debabarrenean Itaiak; hau da, Emakumeon Antolakunde Sozialistak. Ermuan egin zen jarduera-sorta horren lehen ekintza, otsailaren 21ean, eta azkena ere bertan izango da; Martxoaren 8an, zehazki. Egun horretarako mobilizazioa antolatu dute, Martxoaren 8a plazan, 12:30ean.

Duela bi aste inguru abian jarri zenituzten Debabarrenean Martxoaren 8ari lotutako ekintzak. Zeintzuk izan dira ekintza horiek eta zer-nolako harrera izan dute? Deban eta Ermuan ekin ginen egitarauari, *Emakume langileon askapenerako erronkak eta proposamena* hizpide zuten hitzaldi-ekin. Hitzaldietan, Itaiaren I. Kongresuan aurkeztu ziren proposamen politikoen nondik no-

rakoak azaldu genituen, baita emakume langileon zapalkuntza-zen azterketa nahiz zapalkuntza horri aurre egiteko norabide estrategikoaren zehaztapena ere. Gure iritzi, jendetsuak eta parte-hartzaileak izan ziren biak ala biak. Horien ostean, autodefentsa tailerra egin genuen Mendaron aurreko larunbatean, eta igandean Itziarren izan genuen sormen tailerra eta *Ellas en la ciudad* dokumentalaren proiektzioa. Biharko, martxoak 7, beste autodefentsa tailer bat prestatu dugu, Eibarko Ronin klubean, 11:00etan, eta Deban, egun eta ordu berean, kafe-tertulia egingo dugu, Ispiluen gelan. Azkenik, Martxoaren 8rako mobilizatza deitu dugu Ermuan, Martxoaren 8a plazan, 12:30ean. Oso pozik gaude orain arte egindako ekimenek izan duten harrerarekin, jende ugari etorri baita eta orain

arte heldu ez garen jendearengana heltzea lortu baitugu.

Zein da antolatu dituzuen ekintza horien helburua?

Urtean zehar antolatzen ditugun ekimen guztiek, oro har, helburu bera dutela esango nuke. Egia da Azaroaren 25ean –Indarkeria Matxistaren Aurkako Eguna– eta Martxoaren 8an –Emakumeen Nazioarteko Eguna– egitarau zabalagoak antolatzen ditugula, eduki politikoa eta kulturala gure ingurukoei zabaltzeko helburuarekin edota egun puntual horien garrantzia azpimarratzeko xedearekin. Baina ez ditugu ekintza horiek bakarrik egin: jai giroan gertatzen diren jarriaren inguruan ere aritu izan gara festak ate-joka izan ditugunean, indarkeria matxistaren aurkako asanbladak egin ditugu, protokoloak lantzeko bilerak antolatu izan ditugu –bai irekiak, bai lan-sektore fe-

minizatueta–, eskualdean borrorak aktibatzen direnean elkar-tasun keinuak egin izan dizkiegu –Mendaroko ospitaleko garbitzaileek 2023an egindako greban, adibidez–. Gainera, azken urteotan, batez ere, ideia erreakzionarioen gorakadarekin pentsamendu matxistak areagotu eta normalizatzen diren honetan, horiek *desnormalizatze*ko helburua ere izan dugu antolatutako ekintzetan, gaur egungo errealtatea zein den aztertuz, horren inguruan hausnartuz eta kaleak hartuz. Premiazkoa ikusten baitugu matxismoaren aurkako euste-horma bat eraikitzea.

Martxoaren 8aren bueltan antolatutako ekintzak emakumei bakarrik daude zuzenduta?

Itaian garrantzia ematen diogu sortzen ditugun espazio politizatuak emakume langileoi bideratzeari. Bestelako ekintzak, aldiz, interesa duten guztiei daude irekita: parte hartu nahi dutenei, ekarpenak egin nahi dituztenei edo gure proposamenak entzun nahi dituztenei. Helduei zein gazteei. Finean, oso egitarau zabalak daukagu eta denetik topatu daiteke bertan. **Lehen ekintza eta azkena Ermuan izango dira. Zergatik erabaki da Ermuak pisu berezia izatea?**

Gure helburua izan da eskualdeko herri guztietan egitaraua aurrera eramatea, eta horietan guztietan parte hartzeko espazioak irekitzea. Ermuaren kasuan, indarkeria matxistaren aurkako asanblada jarri genuen martxan ikasturte hasieran, eta, asanblada horretan sortu den ekimena ikusita, Martxoaren 8ko elkarretaratzea bertan egitea erabaki genuen.

Zergatik ez dira egin herriko beste antolatzaileekin batera?

Itaia aurreko ikasturtean hasi zen Ermuan jarduten; beraz, lehenengo urte honetan garrantzia eman nahi izan diogu Itaia aurkezteari eta gure irakurketa sozializatzeari. Hala ere, horrek ez du esan nahi aurrerago herriko beste talde batzuekin elkarlanik egingo ez dugunik. Adibidez, aurreko urtean, egun osoko egitaraua antolatu genuen Mendaron Azaroaren 25ean, Tratu Onen Aldeko Emakume Taldearekin eta Mendaroko Gazte Asanbladarekin batera.

Lehen urtea da Martxoaren 8an harrera ekintzak antolatzen dituzuen? Ez; orain dela urte batzuk sortu genuen bailara mailako taldea, eta badaramagu denbora bat

Martxoaren 8an ekintzak antolatzen. Iaz eta orain dela bi urte, esaterako, zenbait herritan egitarauak antolatu genituen, eta, urteek aurrera egin ahala, egitarau zabalagoak ari gara antolatzen eta herri guztietan zerbait egiten saiatzen.

Noiz sortu zen Deba Balarako Itaia?

Orain dela bost urte sortu zen Itaia, Emakumeon Antolakunde Sozialista, eta urte berean aurkeztu genuen Guk Bergaran Deba Balarako taldea. Hasieran, bailara mailan antolatu ginen, indarrak batzeko asmoz. Hala ere, bi eskualdeetako errealtatea desberdina denez, bereizketa egiten dugu modu naturalean Debabarrenean eta Debagoienaren artean: Debabarreneko kideok gure eskualdean jartzen dugu jo-puntua, hobeto ezagutzen dugulako gure ingurua, eta Debagoieneko kideek haienean.

Zenbat lagunek osatzen duzue taldea? Nola antolatzen zarete?

Eskualdeko zenbait herritako emakumeok osatzen dugu taldea, eta espazio irekietan, komiteetan eta asanbladetan beste emakume batzuek ere parte hartzen dute urtean zehar. Modu iraunkorrean biltzen gara, antolatzen ditugun egitarauak aurrera atera ahal izateko eta eskualdeko egoeraren jarraipena egin ahal izateko. Ermuan bertan, Martxoaren 8ko egitaraua prestatu ahal izateko, esaterako, 19 eta 28 urte bitarteko emakumeok bildu gara.

Nola jarri daiteke zuekin harremanetan?

Gurekin aurrez aurre hitz egiteko, gutako edozeinengana jo daiteke, horretarako prest gaude. Bestela, @itaia_debabilara da gure Instagrameko kontua eta debaikomunikazio@gmail.com gure helbide elektronikoa. Bide horretatik ere erantzuten dugu!

"Lehenengo urte honetan, garrantzia eman nahi diogu Itaiaren irakurketa sozializatzeari"

"Modu iraunkorrean biltzen gara, eskualdeko egoeraren jarraipena egin ahal izateko"

Trabakuako tarteko radarrek 4.000 isunetik gora jartzen ditu urtean

Zengotitako tuneletik Trabakua Behekoa jatetxerainoko tartea zaintzen du; abiadura 60 kilometro ordura mugatuta dago, eta egunero 11 gidari zigortzen dituzte, batez beste, muga gainditzeagatik

Ander Gomez
Trabakuako radarrek egunero mendatea zeharkatzen duten 7.700 ibilgailuen abiadura kontrolatzen du. Instalatu aurretik Segurtasun Sailak egindako ikerketatik ondorioztatu zuten gidarien %13k ez zutela abiadura-muga errespetatzen eta %9 zigortzen zirela. 2022ko ekainean jarri zuten martxan, eta, garai hartan Azpiegitura eta Lurralde Garapenerako sailburu zen Imanol Pradalesek azaldu zuenez, puntu beltz gisa kalifikatuta zegoen gunean istripuak murrizteko. Aurreko urteetan lau istripu larri izan ziren, hildakoekin, eta, bestela ere, tarte hartan 60 talka inguru erregistratzen ziren urtean. Hainbat kanpainarekin eta 2016an errepidea hobetzeko egindako lanekin %40 murriztea lortu zuten arren, Bizkaiko Foru Aldundiak radarra ipintzeko eskaera egin zuen, eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak EAEko lehen tarteko radarra izango zena jarri zuen Trabakuan.

BI-633 errepidean dago kokatuta, 36,1 eta 39,8 kilometroen artean, eta bi noranzkoak zaintzen ditu. Horretarako, matrikulak irakurtzen dituzten lau kamera espezializatu erabiltzen ditu: bi Zengotitako tunelean daude eta beste bi Trabakua Behekoa jatetxe parean. Sistemak 60 km/h batez besteko abiadura gainditzen duten ibilgailuak identifikatzen ditu.

Martxan jarri eta urtebetera, 7.000 isunetik gora jarri ziren. Hasierako fasea pasata, kopu-

ru hori dezente jaitsi da, baina, hala ere, milaka gidari zigortzen jarraitzen du. Azken bi urteotan, zifra 4.000 isun inguruan mantendu da: 2024an 4.134 erregistratu ziren eta 2025ean, 4.179. Arau-hausteen gorakada uda garaian izaten da, zonako ohiko gidariak ez diren turistek edo kostara doazen inguruko herrietakoek zeharkatzen dutenean. Kasu horretan ere, kopurua igo da: 607 erregistratu ziren iazko abuztuan, 555 aurrekoan. Isun gehiago diren arren, arau-hauste mailak eta ordainketa goiztiarrek eragina dutenez gero, diru gutxiago bildu da: 2024an 171.200 euro jaso ziren eta 2025ean, 161.150 euro.

Abiadura kontrolatzeko kanpaina berezia jarri dute martxan asteen
Trabakuako eta Ermua pareko AP-8ko radar finkoek gainera, EAEko errepideetan abiaduraren kontrola areagotzeko operatiboa hasi zuen astelehenan Ertzaintzak, polizia lokalarekin elkarlanean. Segurtasun Sailak jakinarazi duenez, 2026an egingo diren Trafikoa-ren eta Garraioaren Zaintza eta Kontrolerako 33 kanpainetako bat da. Hain zuzen ere, astebete iraungo du eta dome-

Puntu beltz gisa kalifikatuta zegoen gunean istripuak murrizteko jarri zen, lau urte atzera



Tarteko radarren bukaera, Berrizerako noranzkoan, hasiera Markina-Xemeinerako bidean. ANDER GOMEZ



Jatetxe pareko kamerak. A. GOMEZ



Matrikulen %95 detektatzen dituzte kamerek, eta 250 km/h arteko abiadurak. A.G.

ka honetan bukatuko da, martxoaren 8an.

Iaz erkidego osoan egindako kanpainen 134.916 ibilgailu zaindu zituzten, eta 17.606 –totalaren %13– salatuak izan ziren, ezarritako abiadura-mugak gainditzearen. Trafikok azaldu duenez, kontrolak "kasu guztietan prebentzio izaerakoak izango dira", eta helburua da "istripu arin zein larrien kopurua murriztea"; izan ere, 2025ean errepidean hildako pertsonen %33 abiadura desegokiaren ondorioz izan zen.

2025eko balantzean isun kopurua handitu egin den arren, 2024an baino 10.000 euro gutxiago bildu dira

Azken bi urteetan jarritako isunak

ITURRIA: TRAFIKOA

	2024		2025	
	Kopurua	Bildutakoa	Kopurua	Bildutakoa
Urtarrila	341	14.600	122	4.550
Otsaila	355	15.050	209	8.100
Martxoa	485	21.100	345	14.000
Apirila	314	13.000	464	19.650
Maiatza	261	8.200	468	20.800
Ekaina	357	14.450	475	20.150
Uztaila	515	23.050	567	24.200
Abuztua	555	23.450	607	23.800
Iraila	287	11.950	250	9.900
Urria	239	9.450	154	4.900
Azaroa	201	8.050	185	4.500
Abendua	224	8.850	333	6.600
Guztira	4.134	171.200	4.179	161.150

OHARRA: BILDUTAKO KANTITATEAK EUROTAN



Herrigunea zeharkatzen duen tentsio ertaineko linea elektrikoa. A. GOMEZ

Goi-tentsioko linea berrien inpaktua murrizteko alegazioak aurkeztu ditu Udalak

Herritarren osasuna eta ingurumenaren zaintza bermatzeko neurriak proposatu ditu

Ander Gomez

2030eko Energia Elektroaren Plana Espainiako Gobernuak bultzatutako plangintza estrategikoa da, eta sare elektrikoa modernizatzea eta indartzea du helburu. Plan horretan, goi-tentsioko linea berriak eraikitzea eta daudenak egokitzea aurreikusten da. Hala ere, azpiegitura-sare horrek ingurumenean eta bizi-kalitetearen nabarmen eragin lezake, bereziki herriguneetatik eta etxebizitzetatik gertu kokatu nahi diren kasuetan, eta mapa horren barruan dago Mallabia. Gauzak horrela, Udalak alegazioak aurkeztu ditu Energia Politikako eta Meatze-tako Zuzendaritza Nagusian.

Proposatutako neurriak

Lehenik eta behin, mallabitarren osasuna babesteko bi neurri proposatu ditu. Alde batetik,

segurtasun distantzia handiagoak ezartzea: goi-tentsioko lineek kilometro erdi zaintzea herrigunetik, eta, orokorrean, gutxienez 100 metroko distantziara egotea etxebizitzetatik. Bestetik, erradiazioarekiko esposizio maila berrikustea nahi dute. Azaldu dutenez, egungo ingurumen azterketak 100 mikrotelako mugak proposatzen ditu, baina handiegia direla uste dute. Horregatik, eremu elektromagnetikoei osasunerako dakarten arriskuaz ohartarazten duten Europako Kontseiluaren Parlamentu Biltzarren gomendioei kasu eginez, muga 0,1 mikrotelara murriztu nahi du Udalak.

Ingurumenaren kezkari erantzuteko, posible den kasuetan lineak lurperatzea eskatu dute. Garestiago eta, batez ere, goi-tentsioko lineetan teknikoki kon-

plexuago den arren, inpaktu bisuala murriztu eta Mallabiko fauna eta ingurune naturala zaintzen lagunduko luke.

Bukatzeko, plangintza horretan tokiko eta EAEko administrazioen partaidetza bermatzea nahi dute. Diotenez, herritarren beharrak hobeto ezagutzen dituzte, eta, bestela ere, informazio guztia helarazi eta feedback zuzena jasotzeko aukera dute.

"Bai aurrerapenari, baina ez Mallabiaren kalterako bada"

Igor Agirre alkateak adierazi duenez, Udala "garapen energetikoan aurrerapausoak ematearen alde egongo da beti", baina alegazioak aurkeztu dituzte, aurrerapen hori "ezin delako herritarren ongizatearen eta Mallabia bereizgarri egiten duen ingurune naturalaren kostura izan".



Rouhaifa Kassem, Kontzejuzarrean egindako aurkezpenean, senarrarekin. LOREA ARREGI

Palestinako emakumeen mina eta erresistentzia, mihisean islatuta

Hilaren 15era arte Kontzejuzarrean egongo den margolan erakusketa aurkeztu du Rouhaifa Kassem artista palestinarra

A.G.

Nahikari Emakumeen Elkartek Rouhaifa Kassem palestinarra margolan erakusketa antolatu du Emakumeen Nazioarteko Egunaren egitarauaren baitan. *Emakume palestinar baten begirada* du izenburu eta biltzen dituen obrak Kontzejuzarreko paretetan daude zintzilik, martxoaren lehen atea zabaldu zituenetik.

Domeka goiza zela aprobetxatuta, herritarrez gain kanpoko jendea ere joan zen inauguraziora, eta aretoa bete egin zuten, artista bera ere bertan zela. Aurkezpena arabieraz egin zuen, eta Mezyad Al Masri senarrak lagundu zion itzultzaile-lanak egiten. Eguerdian hasi ziren, eta ordu erdi geroago *La boda de Rosa* filmaren zine-foruma aurreikusita zegoen, baina, azkenean, bertan behera geratu

zen, bisitariak bi ordu eman baitzituzten azalpenak entzuten, osteko berbetaldian eta Kassemen obrak miresten.

Salmenta solidarioa

Erakusketako pintura guztiak salgai daude, 100 euro inguruko prezioan: zati bat artistak berak jasoko du, beste koadro batzuk egiteko materiala eta markotzatzeak ordaintzeko; gainontzekoa Palestinako errefuxiatuentzat eta Gazako babes-zentroentzat bideratuko dute. Horrez gain, artelanik erosi nahi ez baina ekarpenen bat egin nahi duenarentzat itsulapikoa jarri dute Nahikarietako. Erakusketa martxoaren 15era arte egongo da Kontzejuzarrean, baina programatutako hitzorduetan bakarrik ikusi ahalko da, oraingoz: gaur, barikua, 19:00etan; domeka eguerdi honetan, eta datorrenean.

Ermua-Mallabiako ikasleak garaile

Bizkaia Gazteak ekimenak Durangaldeko oinarritzko Lanbide Heziketako 500 ikasle batu ditu aurtan. Gaztekinen programarekin bukatu da, eta Ermua-Mallabia institutukoek jaso dituzte lehen saria eta aurkezpen onenaren aitortza, *Gazteentzako finantza-heziketa* eta *Parte-hartze digitalerako plataforma* proiektuekin.



GAZTEDE DURANGALDEA



MARTXOAREN 8A

'Beste mundu bat feminismitik'

Martxoaren 2tik martxoaren 18ra bitarteko ekitaldiak antolatu dituzte M-8aren bueltan; nagusia domeka eguerdian izango da: manifestazioa eta ekitaldi musikatu ikusgarria

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Aste honetako astelehenean euskarazko irakurle klubarekin hasi, eta martxoaren 18an gaztelarazko irakurle klubarekin bukatuko dira Martxoaren 8aren bueltan antolatu dituzten ekitaldiak. Tartean, denetik egongo da; batik bat, kultura saioak, adin guztiei zuzendutakoak (ondoko taulan egitaraua).

Baina ekitaldi nagusia, noski, Martxoaren 8an egingo dute, domeka eguerdian.

Manifestazioa eta kantua

Hain justu, Plaza Zaharrean egin dute domekako hitzordua, 12:00etarako. Soraluzeko Emakume Feministek antolatutako manifestazioa abiatuko da handik. Erdi-guneari buelta eman ondoren, eguraldia lagun bada, Plaza Barrizan borobilduko dute hitzordua; bestela, Plaza Zaharreko karpan.

Azken urteotan egin duten moduan, aldarrikapenetik zein ospakizunetik, bietatik izango du domekako ekitaldiak.

Aldarrikapenari dagokionez, zapalkuntza-sistemen aurrean feminismitik "beste mundu bat" eraikitzea posible dela haizatu dute. Leloa izango da *Beste mundu bat feminismitik. Zapalkuntza sistemen aurrean antolakuntza eta borroka*.

'Elektrizitatea' elkarrekin

Ospakizunari dagokionez, berriz, hainbat kantuz osatutako saiotxoak egingo dute, amaiera ikusgarria izango duena; izan ere, ekitaldi musikatua borobiltzeko, 100 emakume baino gehiagok Zea Maysen *Elektrizitatea* kanta abestuko dute elkarrekin.

Birritan elkartu dira entseguetarako, musika eskolan eta frontoian. Hain zuzen, Soralu-



Domekako ekitaldi nagusia iragartzeko kartelak ipintzen, eguaztenean. U.M.Z.

zeko Musika Eskolako musikari emakumezkoek musikatuko dute kantua, eta denetariko emakumez osatutako talde ederra elkartu da hura kantatzeko, berezko indarra izan duten entseguetan.

Zapalkuntza-sistemen aurrean feminismitik beste mundu bat eraikitzea posible dela haizatuko dute

Egitaraua

6tik apirilaren 28ra
Vitalia Samuilovaren grabatuak. Oreka Arten.

6, barikua:
20:00, antzerkia: *La Deskarada*. Antzokian.

Martxoaren 8a, domeka
12:00, ekitaldi nagusia.

9, astelehena
12:00, nerabeentzako antzerkia: *RedNUDES*.

11, eguaztana
09:30, haurren irakurketa txokoa: *Arrosa eta leuna*.

12, eguena
11:00, irakurketa errazeko taldea: *Así era Santa Teresa de Jesus*.

15, domeka
17:00, zinema: *Gaua*.

18, eguaztana
18:30, gaztelarazko irakurle taldea.

Emakumeen eta kantuaren indarra 'Elektrizitatea'-ren entseguetan



Ezoz Perez de Heredia, Goyi Vicente eta Rosa Zabala

"Emakume mordoa elkartu, eta erabat animatuta egon gara"

"Plaentxia Kantuan taldean gabiltza; gustatzen zaigu kantatzea, eta Martxoaren 8a babesteko apuntatu gara. Entseguak benetan ederrak izan dira, emakume mordoa elkartu garelako eta guztiak egon garelako erabat animatuta. Taldea antolatu ginen, eta, nahiz eta desberdinak izan, elkartu egin gara eta benetan gustura egon gara. Musika ere eder-ederra da. Eta kantatu egin behar da, nahiz eta ondo ez kantatu; pertsona guztiendako da ona kantatzea".



Irati Unamuno, Nour Elared, Sugar Ostolaza, Enara Garitano, Amets Alberdi, Maddi Alberdi eta Irene Agirre

"Emakume gazteok ere parte hartu behar dugula uste dugu"

"Gu apuntatu gara lehen aldia delako Soraluzen halako zerbait egiten dela, eta oso polita eta oso berezia iruditu zitzaigun ideia. Gainera, pentsatzen dugu M-8ko aldarrikapena oso garrantzitsua dela. Gure kasuan, uste dugu emakume gazteak garenez guk ere parte hartu egin behar dugula. Eta entsegu bera dagoeneko oso polita izan da, ikustea horrenbeste emakume gauza berarengatik elkartzen garela eta ikustea halako aldarrikapen handia dagoela Soraluzen".



Oihana Garitano, Jurdana Viciosa, Lide Viciosa eta Arantza Barrutia

"Soraluzetarrok ikusarazi behar dugu hemen gaudela"

"Laurok gara Soraluzen jaiotakoak. Iruditzen zait betidanik soraluzetarrak garenok ikusarazi egin behar dugula hemen gaudela. Beti kanpora bizitzera joaten direla soraluzetarrak... Ba, hemen segitzen dugu batzuek, behintzat. Ekimen hau polita iruditu zitzaigun, laurok parte hartzea. Eta begira, ama gogo gutxirekin zetorren, eta entsegutik, berriz, poz-pozik bueltatu zen. Neu ere [Jurdana] pozik bueltatu nintzen; emakume horiek denak batera ikusteak animatu egiten du".



Irati Iñurrieta eta Sara Muñoz eta Edurne Fariñas eta Alaia Martinez ama-alabak

"Oso polita da hainbeste andre elkarrekin kantatzen ikustea"

Irati: "Gurasoen Whatsapp taldera iritsi zen deia; ez genuen zalantzan jarri elkarrekin etortzea, aukera ikusten genuen ondo pasatzeko. Entseguan oso giro ona, jendea oso pozik, gogotsu eta ilusioarekin; desberdina da, hainbeste andre elkarrekin abestea oso polita da".
Edurne: "Abesbatzako kide batengandik heldu zitzaidan deialdia; Alaia hasieran ezetz esan zuen, baina gero, animatu eta hemen gaude. Entsegu oso polita, adin askotariko horrenbeste andre elkarrekin kantatzen...".



Ana Sebal, Mari Carmen Aranberri, Mari eta Belen Calleja, Txaro Matias eta Loli Nieves

"Entseguak hegoak ematen dizkigute"

"Gu kuadrillan etorri gara elkarrekin. Bat nora, besteak hara. Kasu honetan, Anak abisatu zigun ekimen honetaz, eta beste guztiok apuntatu egin ginen. Egia esan, kantuaren tonua ez da erraza, baina denon artean kantatuko dugu, eta errazagoa da horrela; gainera, kantuaren musika oso indartsua da eta gure artean oso giro jatorra dago. Entseguak egundoko indarra ematen dute, hegoak ematen dizkigute. Bestalde, jendearekin ondo, eta dena oso-oso ondo joan da".

Asierren eta Iñakiren omenezko pilota txapelketak 25 urteko ibilbidea egin du

Ekitaldi bereziak izango dira; bereziki, 25 urteotako partaideak elkartu nahi dituzte

Ubane Madera Zangitu UBANE

Aurten, Asierren eta Iñakiren Omenezko Pilota Txapelketak 25. urteurrena beteko du, eta urtemuga esanguratsu horren bueltan ekimen bereziak antolatutako pilota txapelketaren antolatzaileek.

Esan dutenez, ekimenak irekiak izango diren arren, "asmoa da urte hauetan guztietan txapelketan parte hartu duten pertsona guztiak batzea: beteranoak zein gazteak, neskak zein mutilak". Egindako zerrendaren arabera, 190 bat partaide izango ditu txapelketak.

Errepideetan bizia eman

Antolatutako ekitaldiak txapelketa hasten denetik amaitu bitartean egingo dituzte.

Hain justu, 40'Rockera autobus irteerarekin eman zioten hasiera plangintzari. Soraluzeko ordezkariak zabala izan zen hitzordu hartan, eta, besteak beste, Brigade Loco talde entzutetsuak ekarri zituen oroimenera dispertsio politikaren ondorioz hildako hamasei euskal herritarrek, bereziki, Asier eta Iñaki, haien aurtengo kamiseta berezia soinean zutela. "Nahiko genituzke oroimenera ekarri senide eta lagun haiek, bisitan joan eta itzuli ez diren haiek. Errepideetan bizia eman zuten hamasei euskal herritar haiek, eta, bereziki, aurten 25 urte betetzen dira Asierrek eta Iñakik utzi gintuztela; gaurko hau beraientzako doa, eta besarkada estu bat senide eta lagunei. Gora gu eta gutarrak!", esan zuen Lander Aznal taldekide debarrak.

Kamiseta berezia

Aurtengo txapelketako kamisetari dagokionez, berriz, Unai Gaztelumendi marrazkilariak diseinatutakoa da. Martxoaren 13tik apirilaren 2ra bitartean eskuratu ahal izango da, 20 euroan nagusiendako eta 15 euroan umeendako. Barikuetan 19:00etan eta zapatuetan 13:00etan izango da kamisetak erosteko aukera, udaletxe azpian edo Arrano kanpoan jarriko



Soraluzetar kuadrilla, 40'Rock jaialdian. ASIERREN ETA IÑAKIREN OMENEKO PILOTA TXAPELKETA



Brigade Loco taldeko kideak, Asierren eta Iñakiren omenezko kamisetarekin. AITZOL

dituzten mahaietan. Errifak ere salduko dituzte.

Pilota txapelketa

Pilota txapelketari berari dagokionez, berriz, martxoan zabalduko dute parte hartzeko izen-ematea; gero, apirilaren 10ean egingo dute bikoteen zozketa, Gaztetxean, eta hasi, berriz, apirilaren bukaeran hasiko da txapelketa. Gainera, martxoko asteburuetan barruak jokatu dituzte San Andresko frontoian, "beteranoenak animatzeko", esplikatu dute antolatzaileek.

Martxoko domeketan barruak jokatu dituzte, "beteranoenak animatzeko"

Martxoaren 15etik aurrera, domekero elkartuko dira, 17:00etan.

Ekainean bazkaria

Bestalde, txapelketaren finalaren aurretik, ekainaren 20an 25. urteurreneko herri bazkaria egingo dute

Egitaraua eta pilota txapelketa finalaren egunean borobilduko dute. Uztailean bukatuko da, San Andres auzoko jaietan jokatu baita finala. Finala jokatu baino lehen, berriz, *Asier eta Iñaki* izenburua duen komikia aurkeztuko dute.

Ekainaren 20an egingo dute pilota txapelketaren 25. urteurreneko herri bazkaria

Seinale berriak jarri ditu Udalak landa-eremuetako auzuneetan

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Soraluzeko Udalak jakinarazi duenez, landa-eremuko Ezosi, San Andres, Txurruka eta Irure auzotako baserri-bideetan seinale berriak jarri ditu: batetik, auzune bakoitzaren sarreran bertako baserrien kokapen orokorrerako seinaleak jarri ditu; bestetik, baserrien izenak ipini ditu bidegurutzetean. Kelias Movilidad SAU enpresak jarri ditu, 21.656,58 euroko aurrekontuarekin.

Mapa eta kokapena

Udalak azaldu duenez, auzune bakoitzaren sarrerako mapari esker, Ezozik, San Andresek eta Txurrukak baserrien eskema orokor bat izango dute; Irure auzoari dagokionez, berriz, hura zabalagoa izanik eta hiru gunek dituen, gunek bakoitzaren sarreran jarri dute bertako baserri guztien eskema orokorra.

Baserrien izendapenari dagokionez, aldiz, bidegurutzetean soilik jarri dira baserrien ize-

nak. Bidegurutzek batzuetan zutoinean seinalez-tapen bakararra dago, eta beste batzuetan, aldiz, zutoin berean bi, hiru edo lau baserriren izenak dauka. Zutoin bakarrean seinalez-tapen bat baino gehiago agertzen diren kasuetan, goitik beherako baserrien izenaren ordena baserrien hurrenkeraren arabera da.



Seinale berrietako bat. U.M.Z.

Itxaropena elkartekoak Iruñera joango dira urteko lehen txangoan

Itxaropena Erretiratuen Elkarteko zuzendaritzak jakinarazi duenez, martxoaren 25ean egingo dute 2026ko lehen irteera: Iruñera txangoa.

Izen-ematea dagoeneko zabalik dago. Ohi denez, bulegora joanda egin behar da hori, martitzetan edo eguenetan, 11:00etatik 12:00etara bitartean. Martxoaren 17ra arteko epea dago izena

emateko, eta txangoaren prezioa 70 euro da.

Irteerari dagokionez, berriz, 09:00etan abiatuko dira Soraluzetik. Behin Nafarroara iritsita, Etxarrenen hamarretakoa egingo dute, eta gero joango dira Iruñera, eguerdi ingururako. Han hiria ikusteko bisita-gidatua izango dute. Txangoa elkarrekin bazkaltzen borobilduko dute. 14:30ean Auzmendi sagardotegian menua izango dute; noski, sagardotegikoa. Bazkalostekoa egin ondoren bueltatuko dira herrira.

aras
zehaztasun handiko piezak
Mendiola Industrialdea 19
Tel. 943 75 17 36 - 943 75 18 03
Fax 943 75 22 95
aras@tornilleriaaras.com
www.tornilleriaaras.com

BOLIA
TARIMA
Piribak, ardiak, korbintak
Gazte-giroa festa

Criado
Fruktuak Unadegia
• Enkarguak Whatsapp
• Etxerako zerbitzua
• Iberikoak & delicatessen
Autobereziak eta entrega:
09:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbata: 09:00-13:00
629 968 636

IZAGUIRRE
Igeltseritza
Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Enfornak • Era guztietako igeltseritza
50 urteko esperientzia - 610 638 913

Hiru soraluzetar Urrezko Infantil Liga Nazionaleko txapeldun, Burdinolarekin

Sabadellen jokaturako txapelketan irabazi du Bergarako Burdinola hockey taldeak

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Bergarako Burdinola hockey taldea txapeldun izan zen joan den asteburuan Sabadellen izandako txapelketan, jokaturako hiru partiduak irabazita. Gainera, lorpen horri esker, datorren denboraldian Elite Ligan arituko da, maila gorenean.

Moreira, Layza eta Unamuno

Taldekidetuen artean hiru soraluzetar daude: Mikel Layza, Mikel Moreira eta Urko Unamuno. Egindakoarekin pozik dira hirurak.



Burdinola taldea, txapelketa irabazi berriaren ondoren. CRIS ALBISUA

Soraluzeko hiru txapeldunak



MIKEL MOREIRA

"Partidu polita izan zen. Espero nuen irabaztea, baina bi ekipoen zuden eta kosta zen. Ni ondo ibili nintzen. Kontzentratuta. Sartzen nindutenean ahal den hoberena egin, aldatzean deskantsatu eta horrela denbora guztian".



MIKEL LAYZA

"Oso pozik nago, Burdinolarekin irabazten dugun lehen titulu nazionala da. Gadex-Burdiñola partidu gogorra izan zen. Bestela, neu topera ibili naiz. Orain hiru aste lesionatuta egon nintzen, baina orain ondo, topera. Gol asko sartu nituen".



URKO UNAMUNO

"Pozik nago emaitzarekin, bai. Bi ekiporen artean zegoen kontua. Gol bat ere sartu nuen, atetik atera. Gainera, aurrean, Burdinolak bi ekipoen egin ditu; gurearen helburua zen liga irabazi eta mailaz igotzea, eta hori lortu dugu".

Lider dela, domekan jokaturako du Sorak, Ezoziko futbol zelaian

Etzi, domeka, Sorako Erregional Mailako taldeak igoera faseko zazpigarren jardunaldia jokatu du. Beraz, ia igoera faseko erdira iritsi da etxeko taldea, hamabost jardunaldi baitira guztira fase horretan.

Gainera, sendo dabil Sora; lider da. Lasarteko Texas taldearen kontra jokaturako azken partidua irabazita, orain arte-

koetatik ez du bat bera ere galdu, lau partidu irabazi eta bi berdindu egin baititu, eta 14 puntu ditu batuta.

Domekan, sailkapenean zazpigarren doan Gure Txoko taldea izango du aurkari. Oraingoan, etxean, Ezoziko futbol zelaian dute norgehiagoka.

Sorako gainerako taldeei dagokienez, berriz, zapatuan, infantil B taldeak 11:00- eta gazteek 16:30- etxean jokaturako dute. Kadete biek eta infantil A taldeak, berriz, etxetik kanpo dituzte partiduak.

Gallastegik buruz buruko lehen partida jokaturako du Eibarren

Soraluze Pilota Elkarteko pilotariek gaur eta bihar hitzorduak dituzte, etxean zein kanpoan. Gaur, barikua, Julien Gallastegik buruz buruko txapelketako lehen partida jokaturako du Eibarren, 18:30ean hasita. Biher, zapatua, berriz, alebiren eskolarteko partidak jokaturako dituzte Araneko frontoian, 16:00etan hasita.

"Beste ekipoen batzuetan ere badaude neskak, baina gutxi"

AINARA GONZALEZ ARMENGOL SORAKO FUTBOLARIA

Soraluze Futbol Taldeko emakumezko jokalaririk bakarra da

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

2025-2026ko denboraldian Aina Gonzalez Armengol (Soraluze, 2015) da Soraluze Futbol Taldeko neska jokalaririk bakarra. Hura Soran sartu zenean, beste bi neskarekin batera apuntatu zen, eta entrenatzaile neskak ere baziren; baina denborarekin, neska guztiek laga egin zuten. Gonzalezek, hala ere, segitu, eta dagoeneko hiru urte daramatza ekipoa. Aurren, alebiren mailako lehen urtekoen taldean dihardu.

Zer dela-eta apuntatu zinen futbolean?

Enekoren [anaia] partiduak ikusten hasi nintzen eta gustatu egin zitzaizkidan. Horrez aparte, etxekoekin txikitatik jokatu izan dut futbolean, aitarekin eta anaiarekin.

Zer moduz ekipoa taldekideekin? Eta kontrako ekipokoen?

Ondo; besteak bezala, jokalaririk bat naiz. Eta kontrakoekin ere ondo. Errespetu handia dago. Beste ekipoen batzuetan ere badaude neskak. Adibidez, Mutrikan neska bat dago. Baina neska gutxi daude futbol taldeetan. **Zein posiziotan jokatzen duzu?** Defentsa naiz, baina batzuetan aldatu egiten naute eta erdilari-aurrelari ere izaten naiz. Niri gehien defentsa izatea gustatzen zait.

Zergatik animatu zinen futbolean jarraitzea besteek laga zutenean?

Ondo pasatzen nuelako. Laga zutenean, ez zitzaizkidan askorik inporta neska bakarra izatea;



Ainara Gonzalez, futbol zelaian. A.G.

hala ere, nahiago nuke neska gehiago ibiliko balira.

Zure lagun neskek ez dute futbola gustuko, ala?

Batzuei gustatzen zaie, baina dantzan-eta dabilta eta ez dute astirik denerako.

Zuk noraino nahiago zenuke ailegatu futbolean?

Eibar Futbol Taldean gustatuko litzaidake jokatzeko.

Zein da zure futbol talderik gogokoena? Eta jokalaririk gustokoenak?

Ekipo gustukoena, Barça. Jokalaririk, berriz, Alexia Putellas nesketan eta Pedri mutiletan.

Eta Soratik?

Sorarik, gehien gustatzen zaizkit Aitor Estevez, Beñat Gonenaga eta Lander Zubiaurre.

Datorren urtean segituko duzu futbolean?

Bai, duda barik.



TAILER MEKANIKOA
Mekanizaturako piezak - Erremintak
Mendiola Industrialedea 14-4 - 161 PK.
Tel. 943 75 21 42 - Fax 943 75 24 12
E-mail: albisu@albisu.net



ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Tel. 943 75 25 67





Ekimena babestu duten senideetako batzuk, Eguneke Zentroaren aurrean. NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

Sinadura bilketa abiatuko dute, Eguneke Zentroa egunero irekitzeko eskatzeko

Asteburuan hasiko da erabiltzaileen senideek sustatutako ekimena

Nerea Bedialauneta Alkorta

Debako Eguneke Zentroko erabiltzaileen senideek sinadura bilketa abiatuko dute bihar, martxoak 7, zerbitzua asteburu eta jaiegunetan ere ireki dezaten eskatzeko.

Gaur-gaurkoz, hamasei erabiltzailearen senideek egin dute bat ekimenarekin –zentroak hoge pertsona artatzen ditu guztira–, eta herritarren babesa lortu nahi dute, gaur egun astelehenetik ostiralera soilik ematen duten arreta "egunero" eskaini dezaten, jaiegunak barne.

Sustatzaileen esanetan, 2024an eta 2025ean, asteburuez gain, zenbait zubitan ere itxita egon zen zentroa; ondorioz, kasu batzuetan, bost egun jarraian etxean geratu behar izan dute haien senideek. Gainera, urteko egutegiaren berri alde aurretik jasotzen ez dutela ohartarazi dute. "Ez dakigu zein den hemen erabiltzen duten egutegia; beraz, azken unera arte ez dugu jakiten zuzia egingo duten edo ez".

Horrek mendekotasuna duten pertsonen zaintzan eta familien egunerokoan eragin zuzena duela

la salatu dute, eta zaintza-lanetan gainkarga areagotzen duela. "Guztia azken orduan antolatzeak hieroglifiko bat asmatzeak besteko lana ematen digu. Zenbait kasutan, lana eta senidearen zaintza uztartzeko arazo larriak izan ditugu", nabarmendu dute.

Ahoz egindako "promesak"

Eskaera mahai gainean jarri zutenetik urtebete igaro dela gogorarazi dute, eta Udalarari "erantzun argia" eskatzen diote.

2024ko azaroan idatzi bat aurkeztu zuten tokiko erakundean,

udal ordezkariak duten alderdi politiko guztiei zuzenduta, zentroa astelehenetik igandera –jaiegunak barne– irekitzeko eskatzeko. Sinatzaileen arabera, hilabete batzuk lehenago egingo zuela zirudien 2025aren hasieran. "Bazirudien gure eskaera ondo bideratuta zegoela; are gehiago, esan ziguten Aste Santurako egingo zela", zehaztu dute. Ondoren, ordea, epeak atzeratzen joan zirela diote: "Aurrerago, epeak ekainerako aldatu zen, eta, pixka bat aurrerago, *uda ondoren*. Promes guztiak beti ahoz eginak izan ziren. Baina, azkenean, espero zena iritsi zen: *2026an ez da irekiko*, erantzuna".

Erantzuna idatziz jasotzea eskatu ondoren, 2025eko abenduan alkatearen mezu elektroniko bat jaso zutela zehaztu dute. "Bertan adierazten zenez, Aldundiak, lehenik, eta Udalak, ondoren, ezin zuten proiektu hura diruz lagundu. Gainera, ez digute jakinarazi zer aurreikuspen dituzten 2027rako".

Garrantzi handiagoa

Sinadura bilketa sustatu dutenen iritziz, gaiari orain arte eman diotena baino garrantzi handiagoa eman behar zaio; horregatik erabaki dute ekimena bera ere abiaraztea. "Gure biztanleriaren adina gero eta handiagoa da; nagusiagoak gara, eta nork daki guk ere zer beharko dugun etorkizunean".

Azpitarratu dutenez, Eguneke Zentroa "ezinbesteko tresna" da mendekotasuna duten pertsonen beren ingurunean jarrai dezaten, "eta are gehiago Deban, egoitzarik ez dago eta".

Era berean, zaintzaileek bizi duten egoera kontuan izatea eskatu dute. "Erraza da esatea *zaintzailea zaindu behar da*,

baina gero badirudi zaila dela betetzea", diote. Zentroa asteburuetan irekitzeak senideei bizi-kalitatea hobetuko liekeela uste dute, baita "arnasa eta lasaitasuna" eman ere, "senideak behar bezala artatuta daudela jakinda". Herritarrei atxikimendua eskatu diete, aldarrikatzen dutena herri osoaren mesederako izango delakoan: "Ez dugu luxurik eskatzen, eskubide bat baizik".

Horregatik guztiagatik, herritarrei sinadura biletan parte hartzeko dei egin diete, Debako Eguneke Zentroa asteburu eta jaiegunetan ere ireki dezaten, inguruko beste udalerrri batzuetan egiten den moduan –Elgetan, Zestoan, Elgoibarren eta Zumaiian, esaterako–.

Helburua: babes zabala

Asteburuan ekingo diote sinadurak biltzeari. Udaletxe azpiko arkupeetan jarriko dituzte mahaia bihar eta etzi, hilak 7 eta 8, 11:00etatik 13:00etara. Hurrengo asteburuan ere leku eta ordutegi berean arituko direla iragarri dute –hilak 14 eta 15–.

Hasierako xedea 500 eta 1.000 sinadura artean biltzea da: "Ez dakigu honek guztiak zer eragin izango duen, baina zenbat eta gehiago, orduan eta hobeto. Gaiak duen garrantzia ikusita, kopuru hori lortzea posible dela uste dugu". Bildutako atxikimendu guztiak Udalean aurkeztuko dituzte, eskaera indartzeko.

Kanpainan jasoko dituzten atxikimendu guztiak Udalean aurkeztuko dituzte, eskaera indartzeko

Irudi bateratu berria dute Geoparkeak eta hiru udalerrietako Turismo sailek

N.B.A.

Debako, Mutriku eta Zumaia Turismo sailek irudi bateratu berria sortzea adostu dute, turismo-kudeaketa Geoparkearenarekin lerrokatzeko helburuarekin. Erakundearen arabera, "lurraldearen nortasun partekatua indartzeko urrats estrategikoa" da egindako azken berrikuntza hori, eta erakunde

horien balioekin "koherentea, ezaguna eta lerrokatua" den irudi bat sortzea du helburu.

Logotipo berriak udalerrri bakoitzaren ezaugarriak islatzen dituela azaldu dute: "Deba *turbidita* horia kolorearekin bat dator, flyschari aipamena eginez; Mutriku marinel izaerari lotutako urdinarekin irudikatzen da; eta Zumaia, Algorriren ko-

lorearen gogorarazten duen kolore laranjarekin".

Nortasun partekatua

Leire Barriuso Astigarraga Geoparkeko gerentearen iritziz, markaren irudi berria "logotipo aldaketa bat baino askoz gehiago" da: "Lurralde bakar baten nortasun partekatua eta Geoparkea eta bere udalen arteko lankidetzaren estua bisualki adierazteko modu bat da".

Marka berriarekin, Geoparkearen eta udalerrien "ikusgarritasuna hobetu" egingo da.



Nortasunari eutsita, elkarrekin aurrera



Irudi bateratu berria. GEOPARKEA

Egitarau bete-betea dakar Korrika Kulturalak Debara eta Itziarrera

I.A.

Martxoaren 19tik 29ra bitartean Euskal Herria zeharkatu aurretik, hasia da 24. Korrikaren atzerako kontaketa. Martxan dira herrietako batzordeak eta dagoeneko abian dira Korrika Kulturalaren baitako ekitaldiak ere. Deban eta Itziarren, adibidez, lau hitzordu antolatuta dituzte asteburu honetarako.

Gaur (martxoak 6) arratsaldean musika izango da protagonista geurean. Izan ere, Kalean Kantuz taldeko kideek emanaldia egingo dute, 19:00etatik aurrera, eta haiei lekukoa hartuko die, geroago, Aitzuri Abesbatzak (19:30ean). Gainera, Korrikaren materiala eskura-

tzeko salmenta-postua jarriko dute plazan, 19:00etan.

Bihar, berriz, kirol lehia eta eskaintza gastronomikoa ekarriko ditu egitarauak Debara eta Itziarrera, hurrenez hurren. Goizean, Aldats pilotalekuak pala txapelketa mistoa hartuko du, Iruleak Emakume Pilotariak taldearen ekimenez. Eta iluntze partean, Errigora herri ekimenaren aurkezpenean eta produktuen dastaketa izango dira Itziarko Donibane Elkartean, 19:00etan; sarrera doakoa izango da.

Bertso afaria hilaren 13an

Korrika Kulturalaren egitarauak jarraipena izango du datorren astean. Besteak beste, bertso



Kalean Kantuz, 2024an. I.A.

afaria iragarri dute martxoaren 13rako, Debako Arrano Elkartean, 21:30ean, Nerea Ibarzabal eta Aner Peritz bertsolariekin. Sarrerak Burugorriin, Ieraenean eta Zalburdin daude salgai, 30 euroan.



Oinezkoentzako gune izendatu dute, besteak beste, Foruen plaza. A.T.

Trafiko ordenantza berria onartu du Debako Udalak ohiko osoko bilkuran

Oinezkoek izango dute lehentasuna erdigunean; ibilgailuen zirkulazioa debekatu egingo dute, baimendutakoena izan ezik

ARGAZKI ZAHARRA

Alfonso Reyes Ochoaren itsasontzi mamua



ALEX TURILLAS
DEBAKO KULTUR
ELKARTEKO KIDEA

Ez dakigu nor den azpiko argazki horren egilea, baina jakin badakigu 1920. urteko irudia dela. Bertan, Debako itsasadarrean, Artzabal auzoan, hondoratutako lurruntziki txiki bat ikus dezakegu. Neskatala batzuk daude ontzi txikiaren gainean, eta, haien atzean, ezkerrean, Compañía Asturiana de Carbones enpresaren biltegietako bat ikus daiteke; han deskargatzen

zizuten, hain zuzen, Gijondik (Asturias) Debara ikatza ekartzen zuten ontziak.

Askoren memorian ez ezik, literaturan ere arrastoa utzi zuen argazkiko itsasontziak. Horren erakusgarri da, adibidez, Debako ohiko udatiarra izan zen Alfonso Reyes Ochoa (1889-1959) idazle, pentsalari eta diplomatiko mexikarrak *Deba la del facil recuerdo* izenburuko testu ederrean egin zion aipamena. Jorge Luis Borgesek iritziz, "sekula izan den gaztelaniatzko prosagilerik onena" zen Reyes.

Testu hark honela zioen, gaztelaniatik euskarara

ekarrita: *Itsasadarren erdian, adibidez, itsasontzi hondatu bat dago, zurezko eta burdina zaharrezko oztipoa; gauzez bakarrik, guardiaren baten lanparatxo lotsati batek adierazten du bizirik dagoela. Bada, ez iezadazue handik kendu traba hori, mamu hori, hilotz hori. Ibaiertzeko baserrietako askari onetara bidean nabigatzen goazela, aurrean agertzen zaigu, atsekabetua eta serio. Berari eginak gaude gu eta, hortik kentzen dutenean, hutsune bat utziko du espazioan, eremu hil bat koadroan.*



Izaro Aulestiarte

Udal Gobernuak hilaren 26ko bilkuran onartu zuen "udalerriko zirkulazioa arautzeko eta bide segurtasuna hobetzeko berrikuntza garrantzitsuekin" eguneratutako trafiko ordenantza berria. Proposamenak alderdi jeltzalearen eta Orain Debaren aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin egin zuen aurrera.

Azaldu dutenez, araudi berriaren helburu nagusia herritarren bizi-kalitatea hobetzea da, mugikortasun seguruagoa eta antolatua sustatuz, bereziki udalerriko erdigunean. Horiek horrela, Lersundi kalea, Foruen plaza, Plaza Zaharra, Sokagin, Ostolaza, Ifar kalea, Itur kalea, Portu, San Roke, Astillero-Osio eta San Josepe artean- eta Gurutze kalea oinezkoentzako gune izendatu dituzte, eta eremu horietan debekatu egingo dute ibilgailuen zirkulazioa, baimendutako kasuetan izan ezik. Dena dela, astelehenetik larunbatera, lanegunetan, 08:00etatik 12:00etara edonor sar daiteke gune horietara, 30 minutuko tartean.

Oinezkoen guneetarako sarbideetan informazio-kartelak jarriko dituzte, zirkulazioa debekatuta dagoela adierazteko. Halaber, Lersundi eta Ifar kaleetan matrikulak irakurtzeko kamerak jarriko dituzte, bertara sartzen edo handik irteten diren ibilgailuak kontrolatzeko.

Salbuespenak egongo dira baimendutako ibilgailuentzat; hau da, anbulantzientzat, polizientzat

eta gune haietan garajea dutenentzat, baita ibilgailua lan-tresna gisa erabiltzen dutenentzat ere; haiek mugarik gabe sartu ahal izango dira, baldintza batzuk beteta. Gunean garajea edo negozioa dutenek baimen berezia eskatu beharko dute udaletxeko Arreta Zerbitzuan.

Astillero kaleari dagokionez, mantendu egingo dira ordenantza berria baino lehen emandako baimen bereziak. Eta ostalarien eta merkatarien kasuan, kanpaina berezia egingo du Udaltzaingoak, oinezkoen guneetan dauden saltokietara zuzenean bertaratzu.

Baimen bereziak eskatzeko epea martxoaren 31n amaituko da. Zehaztu dutenez, geroago jasotako eskaeren arabera ku-deatuko dira baimenak.

Isunak, maiatzetik aurrera

Baimendutako 30 minutuko egonaldia gaintzen dutenei isuna jarriko diete, baina bi hilabete-ko egokitzapen-epea egongo da, herritarrek araudi berrira egoki daitezen. Epe horretan, gidariak arau berriei ohartaraziko diete, baina isunik jaso gabe. Maiatzaren 1etik aurrera izango dute isuna arau-hausteei.

Lersundi eta Ifar kaleetan ibilgailuen matrikulak irakurtzeko kamerak jarriko dituzte



MARTXOAREN 8A

Ekitaldi-sorta antolatu dute, Martxoaren 8a aldarrikapen eta ospakizun eguna izan dadin

Debako Udalak, Itaiak eta Sare Feministak mobilizatza deitu dituzte herritarrek

Izaro Aulestiarte

Igandea da Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, eta, horren harira, ekitaldi ugari iragarri dituzte Udalak, Debarreneko Itaiak Emakumeen Antolakunde Sozialistak eta Debako Sare Feministak, bereizita, datozen egunotarako.

Gaur, martxoak 6, hasiko dira Udalak antolatutako jarduerak, *Gaua* filmaren emanaldiarekin, Kultur Elkartearen, 19:00etan. Eta iganderako elkarretaratza deitu dute, Foruen plazan, 12:00etan; bertan genero berdintasunaren aldeko adierazpen instituzionala irakurriko dute la aurreratu dute. Martxoaren 28an, berriz, 7 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako Ihes Gela jarduera ludiko eta hezitzailea egingo dute Aldats pilotalekuan. Herritar guztiak ekimenetan parte hartzea eta gizarte berdinzaleago baten eraikuntzan ekarpena egitera gonbidatu ditu Udalak.

Bihar, Itaiaren kafe tertulia

Itaiak, bestalde, abian du Debarrenean *Emakume langileok askatzeko. Batu borrokara!* goiburupean ondutako egitaraua.



lazko manifestazioaren irudi bat. I.A.

Besteak beste, bihar, martxoak 7, kafe-tertulua egingo du Ispiluen gelan, 11:00etan, eta igandean Ermuan mobilizatza deitu du, 12:30ean, Martxoaren 8a plazan.

'Zapalkuntza-sistemei sua'

Debako Sare Feministak, berriz, egun osoko egitaraua aurkeztu du iganderako. Plaza Zaharrean jarri dute lehen hitzordua, 11:00etarako, materiala prestatzeko eta "beroketa kolektiboa" egiteko, eta 13:00etan egingo du ekitaldi nagusia, Foruen plazan,

Zapalkuntza-sistemei sua. Beste mundu bat feminismitik leloa ardatz hartuta. Jarraian, Zea Maysen *Elektrizitatea* abestiaren kantaldi herrikoia izango da Plaza Zaharrean, Iturrian Koruaren eskutik.

Segidan, poteo musikatu feministak girotuko ditu kaleak, eta, ondoren, bazkari kolektibo autogestionatua egingo dute Foruen plazan. Eguna biribiltzeko, bazkalondoan jolasak eta Arramazka musika taldearen kontzertua izango dira aukeran.



Gazte kuadrilla bat, 2024ko Kardantxulo Egunean. ITZIARKO GAZTE ASANBLADA

Egun osoko egitarauarekin ospatuko dute aurtengo Kardantxulo Eguna

"Herritarrok herritarrontzat antolatutako eguna" iragarri dute martxoaren 21erako; salgai daude jada bazkarirako txartelak

I.A. ITZIAR

Udaberria iristearekin batera, martxoaren 21ean, larunbatez, ospatuko dute aurtengo Kardantxulo Eguna Itziarren. Egun osoko egitaraua prestatu dute, eta ekimenetan parte hartzeko eta festara batzeko dei egin diete herritar guztiei.

Hauze azaldu dute antolatzaileek: "Jatorriz Andutz Biltokiak antolatutako eguna izan arren, azken urteotan Itziarko Gazte Asanbladako kideok hartu dugu erreleboa". Nolanahi ere, ez da gazteei bakarrik zuzendutako hitzordua, "denok batera gozatzeko eguna baizik. Kardantxulo Eguna herritarrok herritarrontzat antolatutako eguna da", nabarmendu dute.

Mozorrotzeko askotariko gaiak proposatu izan dituzte aurreko urteetan, hala nola *Musika izarak*, *Zirkua*, *Itsasoa*, *Superhe-*

roiak, *Etorkizuna*, *Telebista...* Aurtengo deialdian, aldiz, *Mitologia* izango da gaia.

Festa goizetik gauera

Goizean ekingo diote egitarauri: 10:00etan plazatik abiatuta, pare bat orduko mendi irteera egingo dute. Eguerdi partean, 13:00etan, Kalebarrenean hasiko den triki-poteoak berotuko du giroa, Itziarko trikitilari gazteen eskutik. Eta, ondoren, bazkaria egingo dute plazan, 15:00etan; txartelak hilaren 10era arte egongo dira salgai, 15 euroan, Burugorri eta Gure Dendan.

Beste urte batez, musika izango da protagonista, bai iluntzean, bai gauetan. Izan ere, 19:00etatik aurrera Skapaie elektrotxaranga ariko da kalez kale, eta, eguna biribiltzeko, Ahantzi taldearen erromeria saioa izango da, plazan, 23:00etan.

Xabi Osa, bigarren, Espainiako Snowboard Kopako bigarren proban

Nerea Bedialauneta Alkorta DEBA

Joan zen asteburuan, otsailaren 28an eta martxoaren 1ean, Espainiako Snowboard Kopako bigarren proba jokatu zuten Formigalen. Lehiakideen artean izan zen Xabi Osa debarra, eta bigarren postua lortu zuen snowboardcross modalitatean, kirol egokituko DPD kategorian.

Debarrak azaldu duenez, finalera iritsi aurretik lehiatutako kanporaketa guztiak nagusitasunez gairiditu ondoren eta sentazio oso onekin heldu zen finalera. "Finalean lehen postuan irten nintzen, baina hasierako jauzietan aurrea hartu zidaten". Urko Egeak kendu zion lidergoa lehen peralteetako batean; hala

ere, Osak bigarren tokia sendo mantendu zuen helmugaraino.

Nabarmendu duenez, Formigalgor zirkuitua aurrekoak baino askoz zorrotzagoa izan zen: "Orain arteko zirkuiturik zailena izan da; oso teknikoa zen". Edonola ere, emaitzarekin gustura dago: "Maila tekniko horretako zirkuitu batean lehiatzen naizen lehen aldian izan da, eta halako emaitza eskuratzea pozgarria da niretzat".

Puntu erabakigarriak

Azken hitzordua Sierra Nevada egitea dago aurreikusita. Osak bertara joan nahi du, baina esan du egutegi-aldaketek eta beste-lako konpromisoek ez diotela



Osa, podiumaren ezkerraldean. XABI OSA

bermatzen bertan egotea: "Ahal badut, han izango naiz; nire esku dagoen guztia egingo dut. Izan ere, jokoan egongo diren puntuak erabakigarriak izan daitezke Europako Txapelketarako sailkatzeko".

Podologia zerbitzua, Pauso Klinikaren eskutik, Itziarren

Itziarko Auzo Udalak jakinarazi du gaurtik aurrera Pauso Podologia Klinikako kideek emango dutela jubilatuei zuzendutako podologia zerbitzua Itziarren. Ander Urkiri eta Patri Urbietak ariko dira zeregin horretan, txandakatuz, hilean behin.

Zerbitzua jaso nahi dutenek izena eman beharko dute Harrera Bulegoan, 943 19 92 55

zenbakira deituta. Bulegoan 18 euroan emango dute zerbitzua, eta, azaldu dutenez, etxeko arreta ere eskainiko dute, baina azken hori emakidatik kanpo geratu da.

Garaipen Ugarteburu arduratu da podologia zerbitzuaz azken zortzi urteotan, eta egin duen lanarengatik esker oneko agertu dira toki entitate txikiko kideak eta herritarrek. "Harrera Bulegoan emandako hitzorduak edo etxeko etxe, baserri baserri egindako bisitak kontaezinak" direla nabarmendu dute.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

LAN-ESKAINTZAK

Elgoibar. Titulu soziosanitarioa duen zaintzaile bila gabiltza, adineko bat zaintzeko. Ordutegia: 09:30etik 10:30era eta 18:45etik 19:45era. 606 71 56 73

ESKAERAK

Elgoibar. Adineko pertsonak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia handia daukat eta orain momentuan malgutasun handia daukat ordutegian. 632 29 26 62

Elgoibar. Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Esperientzia handia daukat. Orduka lan egiteko prest. Garbiketa lanak ere egiten ditut. 632 04 01 71

Elgoibar. Adinekoak zainduko nituzke. Asteburuetan, jaiegunetan, gauetan... etxean zein ospitalean. Etxeko langile lan egiteko ere prest nago. 631 42 56 86

Elgoibar. Adinekoak zainduko nituzke. Titulu soziosanitarioa eta urteetako esperientzia ditut. 603 72 70 67


Elgoibar. Asteazkenak, arratsaldeak, adinekoak zaintzeko prest nengoke. Asteburuetan jardun osoz lan egiteko ere prest nago. Urteetako esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. 631 02 01 69

Elgoibar. Erizain laguntzaile tituluduna naiz eta adinekoak zaintzeko prest nago. Urteetako esperientzia. 674 88 94 87

Elgoibar. Garbiketa lanak egiteko prest nago: elkarre, taberna eta etxetean jarduteko prest. 688 75 86 30

Elgoibar. Lan bila ari naiz. Zaintza lanetan edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Malgutasun osoa ordutegietan. Gauetan lan egiteko ere prest. 602 19 92 52


ZORION AGURRAK



ELGOIBAR Paul
Zorionak, Paul! Astelehenean 8 urte handi! Asteburuan has dadila festa! Maite zaitugu. Muxu pila, etxekoan partetik.



ERMUA Ane
Zorionak, Ane! Disfrutatu zure 9. urtebetetzea eta jarraitu zaren modukoa izaten, lagun zoragarria zara! Patxo potolo bat, familia guztiaren partetik!



ERMUA Ander
Zorionak, Ander! 13 urte! Uffaa! Oso ondo pasa zure eguna familia eta lagunekin! Disfrutatu topera! Besarkada handiak!

Iragarkia jartzeko

943 744 112
barrena@barrena.eus
www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkeneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- BARRENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu.

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurra helbidean sartu.
- Mezua bidali herrietako erredakzioetara edota Whatsappez 688 655 658 zenbakira, eta zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta testua.
- Etorri edo deitu gure betiko egoitzetako batera.

Zure produktu edo zerbitzuak ezagutarazi nahi?

15.000 ale astero
+120.000 irakurle hilean

Ipini publizitatea Barrena astekarian edota Barrena.eus webgunean

publi@barrena.eus | 688 76 96 57

administradores

Rosa M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Errentan bizi naiz, eta bizi naizen eraikinaren teilatua hondatuta dago. Horregatik, itoginak dauzkagu etxean. Behin baino gehiagotan ohartarazi diot jabeari, baina hark komunitateko presidentearengana bidali nau beti, berak ezin duela ezer egin arrazoituta. Duela egun batzuk, horrenbeste alditan esan niola eta, presidentea etxera etorri zitzaidan zer geneukan ikustera, baina ez zuen itoginak konpontzeko konpromisorik agertu. Jakin nahi nuke zer egin dezakedan.

Alokairuan egonda, zuk zeuk ez daukazu inolako lotura juridikorik komunitatearekin, etxetxabearekin baizik. Ugazabarekin daukazu hitzarmena lotuta zuk. Beraz, haren kontra baino ezin duzu egin, eraikinaren jabetza horizontalari lotutako kontuak etxebizitzaren, lokalen, garajeen, trastelekuen... jabea eragiten dielako.

Ondorioa: errentan dagoenak ez dauka titulu juridikorik jabeakideen komunitateari ezer eskatzeko. Eraikineko elementuren baten jabeak baino ezin du egin hori. Hala ere, etxetxabearen betebeharrak nagusia da alokairuan emanda daukan etxea bizitzeko baldintza duinetan izatea, eta zuk diozun kasu horretan ez du bere betebeharrak betetzen, hezetan-arazoak bizitzeko baldintza egokiei zuzen-zuzenean eragiten dielako.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

OSASUN GIDA

RPS 271/12

ainhoa

Jausoro plaza, 6 beheko - Elgoibar

943 531 953
669 565 745

RPS 233/13

aldaz

hortz klinikak

943 366 377

San Bartolome, 22

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola

GIZA ELKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Toribio Etxebarria, 22

Elbar

677 551 850

RPS 183/12

Uzuri

optika audio

Elgoibar

943 740 359

Deba

943 192 192

RPS 177/00

fisio&más

Fisioterapia erreratu eta Kirol Berrabaketa

Trenbide kalea, 13

943 740 191 / 667 953 628

www.fisio-mas.com

RPS 171/12

leku eder

hortz klinika

Elena Herrero Lobo

Ala Agirre Erparantz, 5 - Elgoibar

943 530 053

ELGOIBAR

I. Urteurrena

Maria Ruiz Ortiz

2025eko martxoaren 8an hil zen, 88 urte zituela.



Izar distiratsu bihurtu zara.
Ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Etxekoak

Barrena eskelak:
zabalkunde handiena Debarrenean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - barrena@barrena.eus

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / barrena@barrena.eva

OSTIRALA 6

- **ELGOIBAR Stock Kale**
Azoka Txankakuak antolatuta, Stock Kale Azoka egingo dute, denden ordutegian, 10:00etatik aurrera.
- **SORALUZE Tailerra:**
'Etzeko ekonomia'
Nagusien Kontseiluaren ekimenez antolatutako ekintza, pertsona nagusiei zuzenduta. Kalebarren 8an, 10:00etan.
- **MENDARO Landaola sari banaketa ekitaldia**
Landa garapenaren alde egindako lana saritzen dute. San Agustin kulturgunean, 12:00etan.
- **ELGOIBAR Erakusketa:**
'Noraezean' Ongarri argazkilaritza taldeak antolatuta, Jon Garate Ondarre argazkilaritza elgoibartarraren lanak jarriko dituzte ikusgai, hilaren 21era arte. Astelehenetik zapatara egongo da zabalik, Kultur Etxean, 18:30etik 20:30era. Igande eta iaiegunetan, itxita.
- **DEBA Kalean Kantuz** 24.
Korrika Kulturalaren baitan antolatutako egitasmoa. Herriko kaleetan, 19:00etan.
- **DEBA Aitzuri Abesbatzaren kalejira** 24.
Korrika Kulturalaren baitan antolatutako egitasmoa. Foruen plazan, 19:30ean.
- **DEBA 'Ekinez independentzia'**

Gazte Topagunearen aurkezpena

Debabarreneko Ernairen
ekimenez. Arrano elkartean,
20:00etan.

LARUNBATA 7

- **EIBAR, ELGOIBAR**
ETA SORALUZE Mendi
martxa Basalgoko
zentralaren kontra
Ekitaldia 11:00etan.
Irteerak: Soraluzen, Plaza
Barritik, 09:00etan;
Elgoibartik, 09:00etan,
tren geltokitik (Eibarrera
trenez joateko); Eibartik,
09:30ean, Urkizutik.
- **DEBA Merkatu txikia**
Postuak: Kortaberri
(barazkiak), Zortziko (eztia),
Mañeko (gozoak), Marieta
Tea (tea), Toni El Riquet
(laranjak). Plaza Zaharrear,
09:00etak 12:30era.
- **ELGOIBAR Pilota Eguna**
Elgoibar Ikastolak antolatuta.
LHko eta DBHko ikasleen
arteko pilota partidak.
Ikastolako frontoian,
10:30ean.
- **DEBA Nutrizio eta**
sukaldaritza tailerra
Anne Otegi sukaldariaren
eta Aitziber Aizpuru
nutrizionistaren eskutik.
Plaza Zaharrear,
11:00etatik 12:30era.
- **ELGOIBAR Stock Kale**
Azoka Txankakuak
antolatuta, Stock Kale
Azoka egingo dute, denden

ordutegian, 10:00etatik
13:00etara.

- **DEBA** Pala txapelketa mistoa Debako Korrika Batzordeak eta Iruleak taldeak antolatutako ekimena. Aldats pilotalekuan, 10:00etan.
- **ERMUA** Ipuin-kontaketa: 'Stories to Remember' Lobiano Kulturgunean, 17:30ean.
- **ITZIAR** Errigoraren produktu dastaketa Itziarko Auzo Udaketa antolatuta. Donibane Elkarteak, 19:00etan.

IGANDEA 8

- **MENDARO Oñatiko**
Aitzulora mendi
irteera ikastola ondoko
aparkalekutik, 09:30ean.
- **DEBA Ipuin kontaketa**
saioa Agirre jauregiko
ispiluen gelan. 17:30ean.

ASTELEHENA 9

- **SORALUZE Erakusketa:**
'36. Argazki Rallya'
Kontrargik antolatutako erakusketan, iazko Argazki Rallyan sarituak izan ziren lanak ikusi ahal izango dira. Ordutegia: astelehenetik ostiralera 18:30-20:00 eta larunbatean 12:00-13:30.
- **ERMUA Erakusketa:**
'Paris Syndrome' Lobiano Kulturgunean, 18:00etatik 20:00etara.

ASTEARTEA 10

- **SORALUZE** Hitzaldia:
'Energia trantsizio eza'
JendartEkin proiektuaren



OSTIRALA13

**MENDARO 'Zerua
motxailen aterpe' bertso
saioa** Sarrera: 8 euro.
San Agustin kulturgunean,
22:00etan.

baitan antolatutako tailerra.
Tolarekua aretoan. 10:00etan.

- **ERMUA Erakusketa:**
'Paris Syndrome' Lobiano Kulturgunean, 18:00etatik 20:00etara.
 - **ELGOIBAR 'Segurtasuna eta arriskuen kudeaketa mendian' izenburuko hitzaldia** Aita Agirre kulturguneko areto nagusian, 19:00etan.
-
- ## ASTEAZKENA 11
- **ELGOIBAR Inazio Bereziartua musika eskolakoen dantza jaialdia** Herriko Antzokian, 19:00etan.
 - **ERMUA Erakusketa:**
'Paris Syndrome' Lobiano Kulturgunean, 18:00etatik 20:00etara.
- **ERMUA Erakusketa:**
Elkartean, 18:30ean.
 - **ELGOIBAR Inazio Bereziartua musika eskolakoen dantza jaialdia** Herriko Antzokian, 19:00etan.
 - **MALLABIA Hitzaldia:**
'Zer gertatzen ari da Venezuelan?' Zaparrada Elkarateak antolatuta. Kontzejuzarran, 19:00etan.
 - **ELGOIBAR Helduentzako ipuin kontalaria** Ipuin kontalaria: Simone Negrin. Gotzon Garate Udal Liburutegian, 19:00etan.
 - **ELGOIBAR Elgoibarko isiltasun eskolakoen topaketa** Juan Cruz Igartua apaizak gidatutako saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etan.
 - **ERMUA XIII. Laburbira** Ermua Antzokian. 20:30ean

ASTEAZKENA 11

OSTEGUNA 12

- **ERMUA Erakusketa:**
'Paris Syndrome' Lobiano
Kulturgunean, 18:00etatik
20:00etara.

OSTIRALA 13

- **ELGOIBAR** Odol ateratzea
Jubilatuen Biltokian,
16:30ean.

- **MENDARO Odol**
ateratzea Mendaroko ikastolan, 17:00etatik 21:00etara.
- **DEBA KulturEkin:**
Alain Zulaikaren 'Magia zaparrada'
Familia osoarentzat. Sarrerak Internet bidez 4 euroan: www.labur.eus/nialakulturekin. Kultur Elkarte, 20:00etan.
- **DEBA Bertso afaria:**
Aner Peritz eta Nerea Ibarzabal 24.
Korrika Kulturaren baitan antolatutako egitasmoa. Sarrera 30 euro, Burugorri, Zalburdin eta Ieraenean. Menu begetarianoa erreserbatzeko idatzi debakoarranoelkatea@gmail.com-era. Arrano KulturEkin, 21:30ean.
- **ERMUA Erakusketa:**
'Paris Syndrome' Lobiano Kulturagunean, 18:00etatik 20:00etara.

MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

MENDARO

OSTIRALA, 6

- 'Ovarios verdes fritos' antzeziana. San Agustín Kulturgunean, 18:30ean.

IGANDEA, 8

- Elkarretaratzea Udaletxean, 13:30ean.
- Marina Lledoren kontzertua Sarrera 15 euro. San Agustín kulturgunean, 18:30ean.

ELGOIBAR

OSTIRALA, 6

- 'Esne berriketan' bertso saio literarioa. Musika Eskolan, 19:00etan.
- Triki-poteoa Emakume Feministen Asanbladak antolatuta. Kultur Etxe aurrean, 19:00etan.
- Afari plana Emakume Feministen Asanbladak antolatuta. Kultur Kafean, 21:00etan.

LARUNBATA, 7

- Mendi buelta San Lorentzora. Kalegoen plazan, 09:00etan.
- Bazkaria eta dantza saioa Sigma jatebxean, 14:30ean.

IGANDEA, 8

- Karakatera mendi irteera Emakume Feministen Asanbladak antolatuta. Mekatik, 09:00etan.
- Elkarretaratzea eta batukada Kalegoen plazan, 13:00etan.
- Segidan, manifestazioa Emakume Feministen Asanbladak antolatuta. Kalegoen plazan.
- Txapa tailerra Gaztelekuan, 16:30ean.

ASTEARTEA, 10

- Hitzaldia: 'Zainketetako langileen eskubide eta betebeharrak'. Lila Emakumeen Etxean, 17:00etan.

ASTEAZKENA, 11

- Zinema: 'Jone, batzuetan'. Herriko Antzokian, 21:00etan.

OSTIRALA, 13

- Zinema-foruma eta kafe-tertulia. Lila Emakumeen Etxean, 18:30ean.

OSTIRALA, 13

- Zinema-foruma eta kafe-tertulia. Lila Emakumeen Etxean, 18:30ean.

SORALUZE

OSTIRALA, 6

- Vitalia Samuilovaren erakusketa Marxoaren 6tik apirilaren 28ra arte, Oreka Art Galleryn, 19:00-20:00, asteburuetan.
- 'La descarada' antzerkia. Sarrera 5 euro. Herri Antzokian, 20:00etan.

IGANDEA, 8

- Manifestazioa Plaza Zaharretik, 12:00etan.
- Ondoren, ekitaldi musikatua 100 emakume baino gehiagoren parte-hartzearekin.

ASTELEHENA, 9

- Nerabeentzat antzerkia 'RedNudes' Pikor teatroren eskutik. Herri Antzokian, 12:00etan.

ASTEAZKENA, 11

- Haurren irakurketa txokoa: 'Arrosa eta leuna'. Udal Liburutegian, 09:30ean.

OSTEGUNA, 12

- Irakurketa errazeko taldea: 'Así era Santa Teresa de Jesús'. Udal Liburutegian, 11:00etan.

DEBA

OSTIRALA, 6

- 'Gaua' filmaren proiektzioa Sarrera doakoa. Kultur Elkartearen, 19:00etan.

LARUNBATA, 7

- Kafe-tertulia Debabarreneko Itaiak antolatuta. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 11:00etan.

IGANDEA, 8

- Material prestaketa eta beroketa kolektiboa Debako Sare Feministak

antolatuta. Plaza Zaharrear, 11:00etan.

- Elkarretaratzea Debako Udalak deituta. Foruen plazan, 12:00etan.
- Ekitaldi nagusia: 'Zapalkuntza sistemei sua, beste mundu bat feminismotik' Debako Sare Feministak antolatuta. Foruen plazan, 13:00etan.
- Zea Maysen 'Elektrizitatea' kantuaeren kantaldi herrikoia Iturrian koruaren eskutik. Debako Sare Feministak antolatuta. Plaza Zaharrear, ekitaldi nagusia amaitu ondoren.
- Poteoa bukatutakoan, bazkari kolektibo autogestionatua Debako Sare Feministak antolatuta. Jatekoa norberak, mahaiaik eta aulkiak bertan izango dira. Foruen plazan.
- Bazkalondoan, jolasak eta Arramazka taldearen kontzertua Debako Sare Feministak antolatuta. Foruen Plazan.

ERMUA

OSTIRALA, 6

- Erakusketa: Marxoaren 8ko Kartel Lehiaketara aurkeztutako lanak. Marxoaren 31ra arte. Astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara eta 16:30etik 19:30era – ostiraletan goizez bakarrik zabalik–.
- M-8rako liburu-aukeraketa eta irakurketa gida Marxoaren 13ra arte. Liburutegian eta Emakumeen Topalekuan.
- Emakumeen Nazioarteko Egunari begirako hainbat ekimen Ekitaldi instituzionala, Ermuko ikasleen M-8ko kartel irabazleari saria ematea eta lore banaketa. Marxoaren 8a plazan, 12:00etan.
- M-8ko asanblada irekia Ermuko mugimendu feministak antolatuta. Emakumeen etxean, 18:00etan.
- Clown ikuskizuna: Filipa Balbina Bea Larrañagaren

eskutik, gazteleraz. Lobiano Kulturgunean, 19:00etan.

- 'Bely Basarte' ikuskizuna Sarrera 15 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.

LARUNBATA, 7

- Bertso-saio feminista eta karro-poteo morea Bertsolariak: Izaro Bilbao eta Enara Gallastegi. Orbe Kardinala plazan, 18:30ean.

IGANDEA, 8

- Mobilizazioa Itaiak antolatuta. Marxoaren 8a plazan, 12:30ean.
- Mobilizazioa Ermuko Mugimendu Feministak antolatuta. Ondoren bazkari autogestionatua, eta Iraia musikariaren kontzertu akustikoa. Orbe Kardinala plazan, 13:00etan.

ASTEAZKENA, 11

- 'IA irizpidez eta ongizatez: ulertu, erabili eta zaindu' Hizlaria: Leire Abaigar Elorza. Emakumeen Topalekuan, 17:30ean.

OSTEGUNA, 12

- 'Tribial feminista' Emakumeen Topalekuan, 17:00etan.

OSTIRALA, 13

- 'Marcela' antzerkia Sarrera 12 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.

MALLABIA

OSTIRALA, 6

- Emakumeen Osasun Eskolak: 'Gaixotasun kardiobaskularrak, min kronikoak eta migrainak'. Kontzejuzarrean, 19:00etan.

IGANDEA, 8

- Elkarretaratzea Adierazpen instituzionalaren irakurketa egingo da. Kontzejuzarrean, 12:15ean.
- 'In crescendo' clown ikuskizuna Publiiko helduarentzat zuzenduta. Kontzejuzarrean, 12:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

6	BARIKUA	Garitaonandia / H. Burgoa / A. Alcala
7	ZAPATUA	Arriola / H. Burgoa / M.I. Ugarte / *A. Alcala
8	DOMEKA	Arriola / H. Burgoa / M.I. Ugarte
9	ASTELEHENA	Arriola / Lasuen-Elezgaray / A.M. Baz
10	MARTITZENA	Yudego / Lasuen-Elezgaray / M. Alves
11	EGUAZTENA	Oruesagasti / Lasuen-Elezgaray / I. Lecumberri
12	EGUENA	Barrenetxea / Lasuen-Elezgaray / A. Alcala
13	BARIKUA	Soto / L. Apraiz / M.I. Ugarte

*09:00-13:30

2026KO BOTIKA ORDUTEGIAK, ASTELEHENETIK OSTIRALERA:

Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00
Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00
Itziarko botikina: 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK

Egunez: 09:00-22:00
Gauetz: 22:00-09:00
Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 206 100)
Larunbatak:
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
Deba-Mutriku: 09:30-13:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
Igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK

DEBA	A. ZALDUEGI: Lersundi, 20 - 669 26 22 01
DEBA	H. BURGOA: Astillero, 2 - 667 33 88 90
ELGOIBAR	ARRIOLA: Santa Ana, 1 - 943 74 01 40
ELGOIBAR	BARRENETXEA: Errosario, 26 - 943 74 12 77
ELGOIBAR	GARITAONANDIA: Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
ELGOIBAR	YUDEGO: San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
ERMUA	A.M. BAZ: Zearkale 2 - 943 03 17 03
ERMUA	M. ALVES: Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
ERMUA	A. ALCALA: Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
ERMUA	I. LECUMBERRI: Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
ERMUA	M.I. UGARTE: Goienkale, 11 - 943 17 05 26
MALLABIA	E. ARRONATEGI: Mallazpi z/g - 943 17 24 14
MENDARO	FERNANDEZ: Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
MUTRIKU	LASUEN-ELEZGARAY: Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
MUTRIKU	L. APRAIZ: Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
SORALUZE	SOTO: Rekalde, 1 - 943 75 16 38
SORALUZE	ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

ZINEMA

DEBA

KULTUR ELKARTEA
'Gaua'
Ostirala, 6: 19:00

ELGOIBAR

HERRIKO ANTZOKIA
'Aida y vuelta'
Ostirala, 6: 19:00
Larunbata, 7: 19:00, 22:15
Igandea, 8: 19:00
Astelehena, 9: 21:00
'Como cabras'
Igandea, 8: 16:30
'Jone batzuetan' (Ongarri zinekluba)
Asteazkena, 11: 21:00
'Tres adioses'
Ostirala, 13: 19:00

ERMUA

ERMUA ANTZOKIA
'Flores para Antonio'
Larunbata, 7: 19:30
Astelehena, 9: 20:30

'Ruta de escape'
Larunbata, 7: 22:00
Igandea, 8: 19:30
'Evolution'
Igandea, 8: 17:00

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA
'Balandrau, viento salvaje'
Larunbata, 7: 17:00, 19:45, 22:30
Igandea, 8: 17:00
Astelehena, 9: 19:30
'Sirat'
Larunbata, 7: 19:45, 22:30
Igandea, 8: 17:00, 20:00
Astelehena, 9: 19:30
'Una batalla tras otra'
Larunbata, 7: 17:00
Igandea, 8: 20:00
Astelehena, 9: 19:30
'Baba Yaga eta sorginkerien liburua'
Larunbata, 7: 17:00
Igandea, 8: 17:00

AZKEN BERBA

Eguraldia, 'Frankenstein' eta taupada- markagailua



MAITE RODRIGUEZ

Ba al zenekiten eguraldi eskasa, *Frankenstein* eta taupada-markagailua lotuta daudela?

Itzelezko erupzio bolkaniko batek udarik gabeko urtea eragin zuen 1816an. Garai gogorak izan ziren. Uztek porrot egin ondoren, gosea, biolentzia eta izurriteak izan ziren ipar hemisferioan.

Urte berean, Mary Godwinek -ezkondutakoan Shelley bihurtu zena- Suitzan pasatu zuen uda lagunekin. Eguraldi petralak etxean denbora asko pasatzera behartu zituen. Beldurrezko istorioak asmatu zituzten, ez aspertzeko, eta Maryri gorpu zatiekin egindako munstroari buruzko istorioa bururatu zitzaion. Oporretatik bueltan, istorioan lan egiten jarraitu zuen eta 19 urte zituela publikatu zuen *Frankenstein* nobela Mary Shelleyk.

Ehun bat urte geroago, Minneapolisen Earl Bakken jaio zen. *Frankenstein* inspirazio zuela, taupada-markagailu bateriaduna asmatu zuen koskortu zenean. Milioika lagun bizi salbatu du teknologia horrek ordutik.

Irlandan, 57 egun euritsu daramatzagu segidan hau idazten ari naizela. Aurtengo eguraldi petralak ere horrelako ondorioak izango al ditu?

BUKATZEKO

"Kamerak gauez martxan jartzeko programatuta daude, zein animalia etortzen den ikusteko"

FRANTZISKA IRAOLAGOITIA BASERRITARRA

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Soraluzeko Ezozki auzoko Iriben baserrian bizi da Frantziska Iraolagoitia (Soraluze, 1966). Antzarak, untziak, oiloak, oilarra, ardiak eta ahuntzak ditu, eta horiek guztiak eta baserri ingurua zaintzeko kamerak ditu jarrita.

Zenbat kamera dituzu?

Hiru, zelaiko hiru puntutan. Mugimenduarekin jartzen dira martxan. Kamera batean ikusten dut nondik sartzen diren eta nondik irteten diren, eta beste batean, etxe aurrean dabilten edo ez eta etxe aurretik sartzen ote diren. Kamerak gauez martxan jartzeko programatuta daude. Egunez ere ipini daitezke, baina nire helburua da gauez grabatzea, zein animalia etortzen den ikusteko. **Eta zein animalia etortzen zaizkizu?** Azeria, basurdeak, kirikinoa, hontza ere bai, eta behin ibili zen lepazuri antzeko bat. Horiek denak grabatuta daude.

Noiz etortzen dira?

Normalean, gauez. Basurdeak egunez ere bai, eta azeria ere bai. Oiloak eraman egin zituen behin; beste behin, azeria ukuilu barrura sartu zen leihotik eta barruan agertu ziren oiloak hilda. Beste batean, San Tomas egun batean jaiki ginen eta genituen hamar antzaretatik sei-zazpi hilda zeuden. Egundoko desastrea izan zen. Gainera, antzarak ez dira txikiak, eta horrenbeste hiltzeko, batek daki zer ibili zen.

Orduan ez zenuten kamerarik?

Ez. Eta antzarak kanpoan ibiltzen ziren gauez. Gertatutakoa ikusi



Frantziska Iraolagoitia, zelaian duen kameretako baten ondoan. U.M.Z.

genueanean hasi ginen gauez barrura sartzen. Ukuiluko leihori hesia ipini genion eta ardiak ere gauez sartu egiten ditugu; batez ere, arkumeengatik. Lehen kamerak pandemia inguruan erosi genituen, eta azkenak, orain bi urte.

Hortaz, horretarako, kamerak bai dira erabilgarriak.

Bai, jakiteko zer datorren eta horren arabera neurriak hartzeko.

Animaliak datozenean, zer egiten dute?

Lehenengo, norbera sustatu. Udan leihoa zabalik lo egitean, ahuntzen eta ardien txintzarriak entzuten ditugu, korrika doa-zela. Orduan, kameren irudiak ikusten ditugu eta badakigu zein animalia datorren. Behin, etxe aurrean txakurrekin izan genuen sustoa. Solte lagatzen

ditugu iluntzean, apur bat ibil daitezke, eta bizpahiru aldiz pasatu zaigu basurdeak etxe aurrean ibiltzea, txakurrek haiek usaindu eta eurengana joan nahi izatea.

Eta zer egiten diete, ba, txakurrek basurdeei?

Ez dakit. Txarrena litzateke basurdeak korrika irten eta txakurrak euren atzetik joan eta gero bilatu ezinda ibiltzea.

Halako zer bait pasatu zaizue ahuntzekin, ezta?

"Grabatuta daude basurdeak, kirikinoa, hontza, lepazuria eta azeria ere bai"

Bai. Basurdeak alanbre-sarea jaso eta hesi azpitik sartzen dira zelaira. Eta gero, gure ahuntzak zulo horretatik joaten dira beste baserrira.

Hortaz, basurdeek kalte bikoitza.

Bai. Eurek eragindakoa eta gero ahuntzen bila joan beharra gu.

Azeriari oiloak eta antzarak. Basurdeari zer gustatzen zaio?

Hemen lore batzuk ditugu, eta haien zutarrak jaten dituzte. Iaz, etxe azpian metro koadro inguruan hazi zen lore hori, eta, egunetan, basurdeak sartzen ziren egun bat bai eta bestea ere bai, lorearen zutarrak jatera. Janariarengatik elkarren artean borroka ere egiten dute.

Egunero begiratzen dituzu kamerak?

Ez, ez. Normalean, basurdeak ibiltzen badira edo sumatu badut ibili direla, orduan. Azkenak hemen abenduan ibili ziren. Demaseko triskantza egin zuten. Lursail gutxi dugu, eta daukagun gutxi hori apurtzen badute... Dena den, sail bakarra jaso zuten, eta horren gaizki ere ez.

Zenbat etortzen dira?

Orain, hiru. Uste dut beti berberak direla. Iaz urtarrilean sartu ziren sei errailoi eta bi handi. Geroago ibili ziren lau, baina handiagoak, eta orain, hiru.

Animaliak gordetzeaz aparte, gauza handirik ezin duzue egin, ala?

Ez. Horren berri eman genion guardari. Hark esan zidan hurrengo sartzen denean *esperak* egin daitezkeela -datorrenean zaintzen egon, eskopetarekin-, edo kaiolak jarri.

Zuek bezala, beste baserri batzuek ere badituzte kamerak, ezta?

Bai. Badaude kamerak eguzki-plakekin, irudia momentuan ikustekoak, koloretan erakusten dituztenak... Gureak sinpleak dira. Gure lursailak bakarrik grabatzeko.

Barrena

BATZEN GAITUENA

Jarraitu Debabarreneneko aktualitatea

